



BERGARAKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2022/09/26an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022/11/30ean

AURKIBIDEA

Zioen azalpena.....	3
LEHEN TITULUA: Xedapen orokorrak	3
I. kapitulua: Helburua, kontzeptua eta aplikazio eremua.....	3
II. kapitulua: Dirulaguntzen araubide juridikoa	4
II. TITULUA: Onuradunak eta erakunde laguntzaileak.....	5
I. kapitulua: Onuradunak. Baldintza eta betekizunak. Erakunde laguntzaileak.....	5
III. TITULUA: Dirulaguntza-motak eta haiek emateko prozedurak, eta publizitatea.....	12
I. kapitulua: Dirulaguntza-motak eta haiek emateko prozedurak.....	12
II. kapitulua: Norgehiagokako erregimenean emandako dirulaguntzetarako prozedura	14
III. kapitulua: Udalaren aurrekontu orokorrean aurreikusitako dirulaguntza izendunen araubidea eta zuzenean emateko prozedura	16
IV. kapitulua: Gainerako dirulaguntzen araubidea eta haiek zuzenean eta ohiz kanpo emateko prozedura.....	19
V. kapitulua: Publizitatea	21
IV. TITULUA: Kudeaketa eta justifikazioa.....	22
I. kapitulua: Kudeaketa eta justifikazioa.....	22
II. kapitulua: Aurrekontua kudeatzeko prozedura.....	25

III. kapitulua: Bergarako Udalak ematen dituen dirulaguntzen justifikazioa	26
IV. kapitulua: Dirulaguntzak itzultzea	31
V. kapitulua: Itzultzeko prozedura.....	33
VI. kapitulua: Finantza kontrola	34
V. TITULUA: Dirulaguntzen arloko arau-hauste eta zehapen administratiboak. Zehapen prozedura.....	36
I. kapitulua: Dirulaguntzen arloko arau-haustek	36
II. kapitulua: Dirulaguntzen arloko zehapenak.....	39
III. kapitulua: Preskripzioa eta erantzukizuna	42
Xedapen Iragankorra.....	43
Azken Xedapena.....	43

BERGARAKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA

Zioen azalpena

Dirulaguntzen bitartez bideratzen da sektore publikoaren finantza-jardueraren parte handi bat, erakunde publiko zein pribatuen eskaera sozial eta ekonomikoak asetzeko, finantza-sostenguaren bidez.

Bergarako Udalean, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak toki-erakunde gisa ematen dizkion eskumenez baliatzeko, berebiziko garrantzia du sustapen-jarduerak, eta dirulaguntzak emanez bideratzen da batez ere.

Ekonomiaren ikuspegitik, gastu publikoaren atal garrantzitsua dira dirulaguntzak, eta, honenbestez, bat etorri behar dute aurrekontu-politikaren gidalerroekin.

Administrazioaren ikuspegitik, berriz, interes orokorreko zat jotzen diren zenbait jokabide bultzatzeko teknika bat dira dirulaguntzak, baita interes publikoko jarduerak kudeatzearen administrazio publikoaren eta partikularren artean lankidetzan aritzeko prozedura bat ere.

Diru bidez ematen den laguntza publikoa da Ordenantza Orokor honen ardatza, hura baita arreta arautzailearen premiarik handiena duen laguntza-mota. Beharrezko arauak ezarri behar dira, eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzeko, eta, aldi berean, izaera publikoa dela eta dirulaguntza horiei dagokien kontrola eta gardentasuna areagotu behar dira.

Komeni da, bestalde, irizpide homogeneoak ezartzea, laguntza horiek izapidetu eta justifikatzeko eta, aldi berean, udal-sailen egiaztatze-lana eta dirulaguntzaren xedea betearazteko jarduketak errazteko.

Horrenbestez, hauxe da Ordenantza Orokor honen xedea: Bergarako Udalaren dirulaguntzak banatzeko jarduera oro zedarritzea.

Titulu eta xedapen hauek osatzen dute Ordenantza hau:

LEHEN TITULUA

Xedapen orokorrak

I. kapitulua

Helburua, kontzeptua eta aplikazio-eremua

1. artikulua.— Helburua

Bergarako Udalak eta haren mendeko organismo autonomoek eta zuzenbide publikoko entitateek ematen dituzten dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzea.

Ordenantza honetako IV. tituluko kudeaketa-printzipioak aplikatu behar zaizkie zuzenbide pribatuaren arabekoak diren eta kapital gehiena edo guztia Udalarena duten Bergarako Udalaren mendeko nahiz hari lotutako erakunde guztiek ematen dituzten kontraprestaziorik gabeko diru-emateei, betiere eskumen administratiboak erabiltzearen ondorio badira.

2. artikulua.— Kontzeptua eta aplikazio-eremua

1. Ordenantza honi dagokionez, dirulaguntzat jotzen da aurreko artikuluan aipatutako subjektuetako edozeinek bere aurrekontuen kargura pertsona publiko nahiz pribatuen alde emandako diru-baliabideak, eskakizun hauek betetzen dituztenak:

a) Onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe emandakoa izatea.

b) Jada gauzatuta edo gauzatzeko dagoen helburu jakin bat betetzeko, proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat egiteko, jokabide berezi bat hartzeko edo egoera jakin bati aurre egiteko ematea, eta ezarritako betebeharrak material eta formalak betetzea onuradunak.

c) Finantzatutako proiektuak, ekintzak, jokabideak edo egoerak onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat bultzatzea edo helburu publiko bat sustatzea izatea xede.

2. Ez dira sartzen Ordenantza honen aplikazio-eremuan:

a) Udalaren eta beste administrazio publiko batzuen arteko diru-ekarpenak, eta Udalak bere mendeko organismo zein erakunde publikoei eta zuzenbide pribatuaren mendekoei egiten dizkien ekarpenak, dagozkion eskumenen alorrean erakunde bakoitzaren jarduera finantzatzeko helburua badute.

b) Udala partaide duten fundazio eta partzuergoei egiten zaizkien diru-ekarpenak, eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aipatutako elkartei egiten zaizkienak.

c) Udalaren aurrekontu orokorrean Udaleko talde politikoentzat jasota dauden ekarpenak, indarrean den legerian aurreikusitakoak.

d) Onuradunak aurrez eskatu gabeko sariak.

e) Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan aurreikusitako dirulaguntzak.

f) Beste administrazio batzuek emandako dirulaguntzak, Bergarako Udala edo haren organismo autonomoak bitartekari huts direnean.

3. Ez dute dirulaguntza-izaerarik izango Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 2. artikuluko 4. apartatuan jasotakoek.

4. Ezingo da diruz lagundu sexuagatik inor diskriminatzen duen jarduerarik.

II. kapitulua

Dirulaguntzen araubide juridikoa

3. artikulua.— Araubide juridikoa

1. Hauek bete behar dituzte dirulaguntzek: Ordenantza honen zehaztapenak, dirulaguntza-lerro bakoitza arautzen duten berriazko oinarriak eta dirulaguntza ematean indarrean den gainerako araudia.

Udalaren aurrekontuan ageri diren dirulaguntza izendunetan eta zuzenean ematen direnetan, Ordenantza hau aplikatu behar da dagokion hitzarmen arautzaileak aurreikusi gabeko gaietan, baldin eta bat badator zuzenean emateko dirulaguntzei buruzko lege-xedapenekin.

Ordenantza honetan eta kasuan kasuko deialdian aurreikusi gabekoetan, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko Erregelamendua —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartua— aplikatu behar dira, bai eta aurrekontua egikaritzeko oinarriak eta aplikagarri diren gainerako xedapenak ere, berriazko ordenantzaren batek arautzen dituenak izan ezik.

2. Dirulaguntzak berariazko ordenantzaren batek arautzen baditu, ordenantza horrek dioenaren arabera kudeatu behar dira, eta osagarria izango da Ordenantza Orokor honek dioena.

3. Sortzen den tresna juridikoaren edo Hitzarmenaren arabera arautu behar dira Bergarako Udala eta hainbat administrazio publiko edo haien mendeko bestelako organismoak partaide dituzten partzuergoek, mankomunitateek edo erakundeek ematen dituzten dirulaguntzak eta haien arteko hitzarmenak direla medio ematen direnak, eta Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoarekin etorri behar dute bat.

Europar Batasunaren kontura finantzatzen diren dirulaguntzak, berriz, kasu bakoitzari aplikagarri zaizkion arauen eta haiek EBko estatu bakoitzean garatzeko edo haietara egokitzeko arauen arabera kudeatu behar dira.

5. Europar Batasunaren kontura finantzatzen diren dirulaguntzei zuzenean aplikagarri zaizkien arauen osagarriak dira Ordenantza honen bidez araututako dirulaguntzak emateko eta kontrolatzeko prozedurak.

II. TITULUA

Onuradunak eta erakunde laguntzaileak

I. kapitulua

Onuradunak. Baldintzak eta betekizunak. Erakunde laguntzaileak

4. artikulua.— Onuradunak

1. Dirulaguntzen onuraduntzat joko da dirulaguntza ematea eragin zuen jarduera egingo duen pertsona fisiko zein juridikoa, edo dirulaguntza ematea zilegi egiten duen egoeran dagoena.

2. Onuraduna pertsona juridikoa baldin bada, onuraduntzat hartuko dira haren bazkideak ere, baldin eta dirulaguntza emateko arrazoitzat hartutako jarduera guztiak edo batzuk pertsona juridikoaren izenean egiteko konpromisoa hartzen badute.

3. Halaber, onuradun izan daitezke pertsona fisiko nahiz juridikoen elkartek —publikoak zein pribatuak—, ondasun-erkidegoak edo bestelako unitate ekonomiko edo ondare bereziak, betiere, nortasun juridikorik izan ez arren, proiektuak, jarduerak edo jokabideak gauza badizakete edo dirulaguntza jasotzeko moduko egoeran badaude.

Horrelakoetan, bai eskaeran bai dirulaguntza emateko ebazpenean berariaz adierazi behar da zer betearazte-konpromiso hartu dituen elkarteko kide bakoitzak eta zein den horietako bakoitzagatik aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, haiek ere pertsona onuraduntzat hartuko baitira. Kasu guztietan, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, elkarteari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoa izango duena. Ezingo da elkartea desegin harik eta Ordenantza honetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

5. artikulua.— Erakunde laguntzaileak

1. Hauek dira erakunde laguntzaileak: dirulaguntzarekin lotutako ondore guztietarako organo emailearen izenean eta kontura arituta, onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkietenak, deialdian hala ezarrita badago, edo jasotako funtsak aldeztetik eman eta banatu gabe dirulaguntzaren kudeaketan laguntzen dutenak. Inolaz ere ez dira joko funts horiek erakunde horien ondarearen parte.

Halaber, izaera hori izango dute EBko araudiaren arabera onuradun izendatuak izanik aurreko paragrafoan zerrendatutako eginkizunak soilik esleituta dituztenek.

2. Erakunde laguntzailatzat hartu ahal izango dira Udalaren mendeko organismoak eta zuzenbide publikoko gainerako erakundeak, partaide erabateko edo nagusi Udala duten merkataritza-sozietateak eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen diren elkarteak.

6. artikulua.— Onuradun edo erakunde laguntzaile izateko bete beharreko baldintzak

1. Hauek izan daitezke onuradun edo erakunde laguntzaile: dirulaguntza jasotzea justifikatzen duen egoeran dauden pertsonak edo erakundeak, edo deialdian aurreikusten diren inguruabarrak betetzen dituztenak.

2. Baldintza hauek bete behar dituzte erakunde laguntzaileek, Ordenantza honetan eta 38/2003 Legean ezarritakoez gain:

a) Irabazi-asmorik gabeko erakundeak izan behar dute.

b) Dirulaguntza kudeatzeko behar adina baliabide material eta jende badutela frogatu behar dute.

3. Ezingo dira izan Ordenantza honen bidez araututako dirulaguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile inguruabar hauek dituzten pertsonak eta erakundeak, dirulaguntzaren izaeragatik haren araudi erregulatzailerak salbuesten ez baditu:

a) Epai irmoaren bidez zigortuak, dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukerarik ez izatera.

b) Konkurtso-deklarazioa eskatu dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jotakoak, konkurtsoa deklaratu dutenak, esku-hartze judizial baten mende daudenak edo Konkurtso Legearen arabera desgaitu dituztenak eta konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitze-epea amaitu gabe dutenak.

c) Errudun jo dituzten kausaren bat dela medio, Administrazioarekin sinatutako kontratu oro irmoki suntsiarazita dutenak.

d) Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduera arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legearen edo Administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen suposturen baten pean dauden pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak izan daitezke, edo ekainaren 19ko Hauteskunde Araubide Orokorraren 5/1985 Lege Organikoak arautzen dituen hautapenezko karguetan daudenak, lege horrek dioenari edo gai horiek erregulatu dituen araudi autonomikoari jarraikiz.

e) Egunean ez daudenak indarreko xedapenek ezarritako zerga-betekizunetan eta Gizarte Segurantzarekikoetan, erregelamenduz zehazten den moduan.

f) Erregelamenduz zerga-paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde batean dauden zerga-egoitza eta Bergarako Udalaren eta haren mendeko erakundeen zordun ez direnak, mugaeguneratutako zorrak direla medio (likidoak eta epe exekutiboan galdagarriak).

g) Egunean ez daudenak dirulaguntzak itzultzeagatik obligazioak ordaintzeari dagokionez.

h) Epai irmoz zigorturik daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauraren arabera.

i) Sexu-bereizkeriagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala dutenek, edo gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alorrean ez-betetzeak egin dituztenek, Euskadiko Gizonen

eta Emakumeen berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, dagokion zehapenak agintzen duen eperako.

j) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

4. Inolaz ere ezin dute izan Ordenantza honen bidez araututako dirulaguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debeku-arrazoiek eragindako elkarteak.

Halaber, ezin dira onuradun edo erakunde laguntzaile izan 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak aurkitzeagatik inskripzio-prozedura administratiboa eten zaien elkarteak, harik eta ebazpen judizial irmo batek adierazi arte egin daitekeela inskripzioa kasuan kasuko erregistroan.

5. Hauek dira onuradun edo erakunde laguntzaile izateko pertsonak edo erakundeek artikuluko honetako 2. eta 3. apartatuetan aipatutako debekurik ez dutela frogatzen duen agiria eskuratzeko bideak: lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak —Estatuko edo autonomia-erkidegoetako Administrazio Orokorrek teknika elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzeko ezarritako erregelamenduzko araudiari jarraikiz— edo administrazioaren ziurtagiria, kasua zein den. Agintaritza eskudunak ezin badu agiri hori egin, haren ordean erantzukizunpeko adierazpen bat egin daiteke administrazio-agintaritza edo notario publiko baten aurrean. Halere, beharrezkoa izango da ziurtagiri fede-emailea aurkeztea, dirulaguntzaren onuradun suertatuz gero.

7. artikulua.— Aurkeztu beharreko dokumentazioaz eta datu pertsonalen tratamenduz eskatzaileei eta onuradunei eman behar zaien informazioa

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikuluko dionari jarraikiz, interesdunek agiririk ez aurkezteko eskubidea dute, egoera hauetakoren bat jazoz gero:

a) Agiriak jada Korporazioaren esku egotea; horrelakoetan, ofizioz gehitu daitezke, betiere eskatzaileak datu hauek adierazten baditu eskaeran —emakida-prozedura izapidetzeaz arduratzen den organoak egiaztatu beharko ditu—:

1) Aurkezpenaren (behar denean, jaulkipenaren) data eta organoa edo bulegoa.

2) Aurkezpena eragin zuen prozeduraren izendapena. Dirulaguntza-deialdietan, zehaztu egin behar da epigrafea eta haren argitaratze-urtea.

Administrazioaren esku dauden datuek eta agiriek bi arrazoi hauengatik galduko dute indarraldia: haien balio-epea amaitu delako edo bost urte baino gehiago igaro direlako prozedurara gehitu zirenetik. Nolanahi dela ere, Udalak eskubidea du interesdunari datuak edo agiriak berriro eskatzeko, baldin eta ez badira behar bezala egiaztatu.

b) Beste edozein administrazio eginda egotea. Horrelakoetan, Bergarako Udaleko sail eskudunak eskubidea du zuzenean kontsultatzeko edo eskuratzeko Ordenantza honetako baldintzak betetzen diren egiaztatze behar dituen datuak eta/edo agiriak eta dirulaguntzalarro bakoitzeko oinarri edo berariazko ordenantza arautzaileek eskatzen dituzten beste batzuk, interesatuak motiboz horren aurka egin ezean.

Interesatuak motiboz egiten badio aurre bere datuak kontsultatzeari, aurkakotasuna izapidetzeko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

Halere, agiria eskuratzeko ezintasun materiala dagoenetan, agirian aipatzen diren baldintzak beste bide batzuetatik aurkezteko edo egiaztatze eskatu ahal izango zaio eskatzaileari.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak agintzen duenaren arabera egin behar da eskaera eta dokumentazio osagarrien aurkezpen elektronikoa.

3. Datu pertsonalen tratamendua legitimatzeko, berriz, interes publikoko eginkizun bat bete beharko da edo Bergarako Udalari esleitutako botere publikoak erabili, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamenduaren 6.1.e) artikuluan agintzen dutenaren arabera.

Bergarako Udalak administrazio publikoetatik telematikoki eskuratzen duen informazioa baliatuko du, dirulaguntza jaso eta mantentzeko araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatze aldera.

8. artikulua.— Onuradunen eskubideak eta betekizunak

1. Emandako zenbatekoa kobratzeko eskubidea dute pertsona edo erakunde onuradunek, dagokion deialdi, hitzarmen edo emate-erabakiko baldintzei jarraikiz.

2. Berariazko ordenantzek, deialdiek, hitzarmenek edo emate-erabakiek jasotzen dituzten berariazko betekizunez gain, obligazio orokor hauek izango dituzte Bergarako Udaleko dirulaguntzen onuradunek:

a) Dirulaguntzak ematea justifikatzen duen helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo jokabidea hartzea.

b) Dirulaguntza eman duen organoaren edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatzea betetzen direla dirulaguntza jasotzeko edo hartaz baliatzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak, egin dela zegokion jarduera eta bete dela zegokion helburua.

c) Dirulaguntza eman duen organoaren edo erakunde laguntzailearen egiaztatze-jarduerak onartzea, bai eta Udaleko, autonomia-erkidegoko, Espainiako Estatuko zein Europar Batasuneko dagozkion kontrol-organo eskudunek egin beharreko beste zeinahi egiaztatze- eta kontrol-jarduera finantzarioak ere, eta zeregin horietarako eskatzen zaien informazio guztia ematea.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso gero, haien berri ematea dirulaguntza eman duen organoari edo erakunde laguntzaileari. Jaso bezain pronto eman behar da jakinarazpen horren berri, betiere jasotako funtsen aplikazioa justifikatu aurretik.

e) Egunean egotea Ogasunarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Udalarekiko betekizunei dagokienez. Bergarako Udalaren eta haren mendeko erakundeen zordun ez izatea, mugaeguneratu den eta epealdi exekutiboan galdagarria den edozein zor likido dela eta.

Ofizios begiratuko da ea bete diren aurreko paragrafoan aipatutako Bergarako Udalarekiko obligazioak, eta espedientera bilduko den ziurtagiri bat igorriko da.

f) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak ere barne direla, egiaztatze- eta kontrol-jardueretarako erabil daitezen, sei urtez gutxienez.

g) Diruz lagundutako jardueren berri zabaltzeko neurriak hartzea, eta berariaz adieraztea Bergarako Udalak eman duela haietarako laguntza.

Argitaratzen diren esku-orri eta kartel guztietan, sare sozialetan eta beste edozein publizitate-euskarritan adierazi behar da Bergarako Udalak eman duela laguntza. Halaber, aurkezpenik edo prentsaurrekorik egiten bada, Bergarako Udala gonbidatu egin behar da ekitaldira.

h) Jasotako funtsak itzultzea, Ordenantza honetako 60. artikuluan jasotako egoerarik sortuz gero. Funtsak itzultzeari buruzkoa da artikulua hori.

i) Indarreko kontratu-legeak diruz laguntzen dituen kontratuei dagozkien baldintza guztiak betetzea.

j) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar diren baimen guztiak lortzea, eta haien ebazpenak betetzea.

k) Jarduerari buruzko informazioa ematea, Udalak haren jarraipena egin dezan eta, behar izanez gero, laguntza eskaini dezan.

l) Laguntza eman duen organoa jakinaren gainean jartzea, dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein inguruabarretan aldaketarik gertatzen bada.

Bestalde, indarreko araudi aplikagarria bete beharko da, eta baldintza hauek bete:

- Euskararen erabilera errespetatzea: dirulaguntzak jasotzekotan, euskara nahitaez erabili beharko da jarduketa eta komunikazio publiko idatzietan, hala nola iragarkietan, oharretan eta abar.

Ahozko komunikazioetan bi hizkuntzak erabiltzen badira, euskarari eman behar zaio lehentasuna, eta hizkuntza horretan egin behar da lehenbiziko adierazpena.

Idatzizko komunikazio elebidunetan ere euskarari eman behar zaio lehentasuna, bai kokapenari (euskara goiko aldean jarri behar da) bai karaktereen tamainari dagokienez. Euskarazko testuen zuzentasuna bermatzearen, Euskara Zerbitzura eraman ahal izango dira azter dezaten.

Antolatutako jardueretan (ikastaroak, hitzaldiak, entrenamenduak, bestelako ekitaldiak...), euskararen erabilera sustatu behar da, batez ere gazteen artean, ikastetxeetako lanaren osagarri.

- Tratu-berdintasunari eta pertsonen diskriminaziorik ezari dagokienez, uztailaren 12ko 15/2022 Legeak dioena bete behar da. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, berriz, Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea bete behar da, eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa. Hona hemen arlo horretan bete beharreko baldintzak:
 - Agiri, publizitate, irudi eta material guztietan hizkuntza ez-sexista erabiltzea, estereotipo sexistak edo emakumeen diskriminazioa eragin ditzaketen irudiak saihestea eta balio hauek sustatzea: berdintasuna, oreka, aniztasuna, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitatea. Hizkera inklusiboa eta ez-sexista baliatzea sortzen diren irudi, komunikazio eta euskarri guztietan.
 - Sexuaren aldagaia sistematikoki txertatzea egiten diren estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan, bai eta Udalari aurkeztu beharreko txostenetan ere.
- Mendekotasunen prebentzioari dagokionez, Euskadiko Mendekotasunei buruzko 1/2016 Legeak edari alkoholduen publizitatea, sustapena, salmenta eta kontsumoa mugatzeko ezartzen dituen neurriak nahitaez bete behar dira dirulaguntzak jasotzeko, batez ere adingabeei zuzendutako jardueretan. Neurri berak hartu behar dira tabakoarekiko mendekotasunaren prebentziorako ere.
- Adingabeei dagokienez:
 - Behar diren neurriak hartu behar dira bi lege hauek bete daitezten dirulaguntza eskatu duen erakundeak antolatzen, Udalak diruz laguntzen eta adingabeek parte har dezaketen jarduera eta ikastaro guztietan: Adingabearen Babes Juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko

Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoa. Halaber, Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa ere aurkeztu behar dute jarduera horien antolatzaileek.

3. Dirulaguntzak jasotzen dituztenen kontu-ematea —Kontu Auzitegiaren Funtzionamenduari buruzko apirilaren 5eko 7/1998 Legearen 34.3 artikuluan aipatzen dena— gauzatzeko, berriz, dirulaguntza eman duen organoaren edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatu behar da laguntza. Artikulu horren 1. apartatuko b) paragrafoan dago jasota betekizun hori.

9. artikulua.— Erakunde laguntzaileen betekizunak

Betekizun hauek dituzte erakunde laguntzaileek:

a) Jasotako funtsak onuradunei ematea, dirulaguntzaren deialdian ezarritako irizpideei eta laguntza ematen duen erakundearekin sinatutako hitzarmenari jarraikiz.

b) Egiaztatzea, dagokionean, dirulaguntza emateko baldintzak eta eskakizunak bete direla eta eraginkorrak direla, egin dela dirulaguntza ematea edo hartaz baliatzea justifikatzen duen jarduera eta bete dela zegokion helburua.

c) Dirulaguntza eman duen organoaren aurrean justifikatzea dirulaguntza jaso izana eta, dagokionean, onuradunek aurkeztutako justifikazioa entregatzea.

d) Dirulaguntza eman duen organoak funts horien kudeaketari buruz egindako egiaztatze-jarduerak onartzea, bai eta Udaleko, Espainiako Estatuko zein Europar Batasuneko kontrol-organo eskudunek egin beharreko beste zeinahi egiaztatze- eta kontrol-jarduera finantzarioak ere, eta zeregin horietarako eskatzen zaien informazio guztia ematea.

10. artikulua.— Erakunde laguntzailearekiko lankidetzeta-hitzarmena

1. Lankidetzeta-hitzarmena izenpetu behar dute laguntza ematen duen erakundeak eta erakunde laguntzaileak, horrek bete beharreko baldintzak eta betekizunak arautzeko.

2. Gehienez ere lau urte iraun dezake lankidetzeta-hitzarmenak; alabaina, hura iraungi aurretik alderdi biak ados jarriz gero, aldatzea eta luzatzea erabaki dezakete. Edonola ere, luzapenen iraupen osoak ez du izan behar hasierako epearen indarraldia baino luzeagoa eta lankidetzeta-hitzarmenak ez du iraun behar —guztira— sei urte baino gehiago.

Dena dela, dirulaguntzaren xedea maileguak diruz laguntzea bada, maileguak erabat ezereztu arte luza daiteke hitzarmenaren iraupena.

3. Informazio hau jaso behar du, gutxienik, lankidetzeta-hitzarmenak:

a) Lankidetzaren eta erakunde laguntzailearen xedea.

b) Erakunde laguntzaileak kudeatu behar dituen dirulaguntzen araudi erregulatzaile bereziaren identifikazioa.

c) Lankidetzeta-hitzarmenaren iraupena.

d) Erakunde emailearen alde antolatu behar diren berme-neurriak, antolakuntza-baliabideak eta ezerezte-prozedura.

e) Dirulaguntzak kudeatzeko prozeduraren faseetan erakunde laguntzaileak bete eta betearazi behar dituen baldintzak.

f) Funts publikoen banaketa lankidetza bidez egiten bada, zehaztu behar da zer epetan emango zaizkion funtsak erakunde laguntzaileari eta zer baldintza aplikatuko diren jasotako funtsak onuradunei entregatu arte gordailutzeko.

g) Funts publikoen banaketa lankidetza bidez egiten bada, erakunde emailearen dirulaguntzak onuradunei entregatzeko baldintzak.

h) Nola justifikatu behar duten onuradunek dirulaguntzak jasotzeko baldintzak bete izana, eta hori egiaztatzeko modua.

i) Nola eta zer epetan aurkeztu den onuradunek jasotako dirulaguntzen justifikazioa, eta, funts publikoen banaketa lankidetza bidez egiten bada, funtsak onuradunei entregatu zaizkiela erakusten duen erakunde laguntzailearen egiaztapenaren epea eta modua.

j) Dirulaguntza behar bezala justifikatu eta ezarritako baldintzak bete diren egiaztatzeko erakunde laguntzaileak eraman behar dituen kontabilitate-liburuen eta -erregistroen zehaztapena.

k) Funtsak itzultzeko obligazioa, dirulaguntza emateko baldintzak eta betekizunak ez badira betetzen eta, nolana dela ere, Ordenantza honetako 55. artikuluan zehaztutako kasuetan.

l) Aurreko artikuluko 1. apartatuko d) paragrafoan aurreikusitako egiaztatze- eta kontrol-jarduketak onartzeko erakunde laguntzaileak daukan obligazioa.

4. Erakunde laguntzaileak zuzenbide pribatuaren peko pertsonak badira, publikotasunaren, konkurrentziaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabeko prozedura baten bitartez hautatu behar dira aurrez, eta hitzarmen baten bidez formalizatu behar da lankidetza.

Hautatze-prozeduran eta hitzarmenean berariaz jaso behar da funts publikoak onuradunei banatuko dizkien erakundeak.

11. artikulua.— Balorazio-irizpideak

1. Irizpide objektibo hauen arabera eman behar dira dirulaguntzak:

1.1. Irizpide orokorrak. Egiten den deialdi bakoitzean, adierazi egin beharko da irizpide hauetatik zein erabiliko diren dirulaguntzak emateko oinarri gisa:

a) Proiektuak Bergararentzat duen garrantzia.

b) Dirulaguntzaren xede den proiektuarekiko eskatzaileak duen esperientzia.

c) Dirulaguntzaren eskatzaileak proiektua gauzatzeko egiten duen diru-ekarpena. Xede horretarako, diruz lagundutako proiekturako erabiliko den jendea eta baliabide materialak bakarrik hartu behar dira kontuan.

d) Diruz lagundutako proiektuaren onuradun izan daitezkeen herritarren kopurua, eta aseko diren beharrak.

e) Proiektuak denboran zehar izango duen egonkortasuna, eta enplegua sortzeko daukan ahalmena.

f) Proiektuaren tamaina, eta Bergarako Udalaren jarduera-programekiko duen lotura.

g) Genero-berdintasunaren sustapenean proiektuak duen eragina.

h) Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen edo elkartearen aurrekontua, eta proiektura bideratuko den ehunekoa.

- i) Proiektua garapen-estrategietan txertatzea, edo beste erakunde batzuei lotutako programekin uztartzea.
- j) Proiektuaren izaera berritzailea eta sortzailea, eta haren programazioaren eta diseinuaren kalitatea.
- k) Beste erakunde batzuekin batera finantzatzea proiektua.
- l) Proiektuaren aurrekontua eraginkorra izatea, egin behar diren jarduerari egokitua.
- ll) Proiektuaren zehaztasuna eta doitasuna deialdian zehaztutako helburuekiko.
- m) Proiektuaren kostuak haren helburuei eta pertsona onuradunen kopuruari egokitzea.
- n) Populazioan eta zeharkako beste populazio onuradun batean izan dezakeen eragina.
- o) Lurraldeen eta sektoreen arteko oreka dirulaguntzak banatzean.
- p) Proiektuaren jarraitutasuna.
- q) Proiektuaren izaera humanitarioa eta haren onuradun izan daitezkeenak.

1.2. Irizpide espezifikoak. Egokitzat jotzen diren irizpide espezifikoak txerta daitezke deialdietan.

2. Balorazio-irizpide bakoitzari ematen zaion puntuazioa eta/edo haztapena zehaztu behar da deialdietan.

3. Deialdietan aurreikusten den gutxieneko puntu-kopurua lortzen ez duten dirulaguntza-eskaerak dirulaguntzen banaketatik kanpo utz daitezke.

12. artikulua.— Zenbatekoa

Deialdi bakoitzean zehaztu behar da eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoa, eta Bergarako Udalak onartutako urteko aurrekontuen aurreikuspenetara egokitu.

III. TITULUA

Dirulaguntza-motak eta haiek emateko prozedurak, eta publizitatea

I. kapitulua

Dirulaguntza-motak eta haiek emateko prozedurak

13. artikulua.— Dirulaguntza-motak

Honela sailka daitezke dirulaguntzak, haiek emateko prozeduren arabera:

- a) Norgehiagokako erregimenean ematen diren dirulaguntzak.
- b) Udalaren aurrekontu orokorrean aurreikusitako dirulaguntza izendunak.
- c) Zuzenean ematen diren dirulaguntzak, interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arrazoiengatik, edo deialdi publikoa eragozten duten behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuegatik.
- d) Dirulaguntza ematea edo zenbatekoa Udalari lege-mailako arau batek ezartzen diona.

14. artikulua.— Dirulaguntzak emateko prozedura-motak

1. Dirulaguntzak emateko prozedura arruntetan, aurkeztutako eskabideak erkatu eta haien hurrenkera ezarriko da, banakako deialdi bakoitzean eta gaiaren arabera organo eskudunek aldeztatik zehaztutako balorazio-irizpideen arabera, dirulaguntzak baloraziorik altuena lortu duten eskabideei eman dakizkien, betiere kreditu baliagarria gainditu gabe eta deialdian jarritako mugak aintzat hartuta.

Salbuespen gisa (deialdiaren xedea zein den), hau egin dezake organo eskudunak, baldin eta deialdian hala aurreikusten bada:

- Dirulaguntzetarako gehieneko zenbateko osoaren hainbanaketa egin dirulaguntzaren onuradunen artean.

- Deialdian zehaztutako zenbatekoa banatu, baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsonen eta erakundeen artean. Aurrekontuko zenbatekoa agortu arte egongo da zabalik aukera hori, eta/edo eskabideak aurkezteko epea amaitu arte.

2. Udalaren aurrekontu orokorrean izenarekin aurreikusitako dirulaguntzak zuzenean eman daitezke, Ordenantza honetan araututako prozedurari jarraikiz.

3. Halaber, albuespen gisa, zuzenean eman daitezke beste dirulaguntza batzuk ere, baldin eta frogatzen bada interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arrazoiak edo deialdi publikoa eragozten duten behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuk daudela, betiere Ordenantza honetan araututako prozedurari jarraikiz.

4. Zuzenean eman behar dira emate-baimena edo zenbatekoa Administrazioari lege-mailako arau bidez ezartzen zaizkion dirulaguntzak, eta dirulaguntzen araudiak agintzen duenaren arabera izan behar du haiek emateko prozedurak.

5. Ezin da eman deialdian zehaztutako zenbatekoa gainditzeko duen dirulaguntzarik.

15. artikulua.— Dirulaguntza-eskabideak

Dirulaguntza-eskabideekin batera, deialdian eskatzen den dokumentazioa aurkeztu behar da nahitaez, eta honako hau, gutxienez:

a) Dirulaguntza jaso behar duen proiektu, jarduera edo programaren deskribapena.

b) Proiektu, jarduera edo programaren gastuen aurrekontua (kontzeptuak eta zenbatekoak) eta diru-sarrerena (jatorria eta zenbatekoak).

c) Zinpeko adierazpena, non zehaztu behar diren beste sail, erakunde, organismo... batzuei egindako dirulaguntza-eskabideak eta, dagokionean, jada jaso direnak.

d) Adierazpena, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekurik ez duela esaten duena.

16. artikulua.— Eskabide- eta justifikazio-inprimakiak

Udalak eman ahal izango ditu eskabide- eta justifikazio-inprimakiak.

Deialdian aurreikusten bada eredu jakin baten arabera izan behar dutela eskabideak, haiekin batera aurkeztu beharreko agiriek eta emandako dirulaguntzaren ordainketa justifikatzekoak, nahitaez bete behar da eskakizun hori. Interesdun guztien esku egongo dira ereduak, bai udal-bulegoetan bai Udalaren webgunean (www.bergara.eus).

Bergarako Udalak eskubidea du, halaber, dirulaguntza izendunen edo zuzeneko justifikazioa berak emandako inprimakien bidez egin dadila eskatzeko. Interesdun guztien esku egongo dira ereduak, bai udal-bulegoetan bai Udalaren webgunean (www.bergara.eus).

Alkatetzaren erabakiz onartuko dira inprimakiak eta haien aldaketak, eta deialdiaren barruan onar daitezke.

II. kapitulua

Norgehiagokako erregimenean emandako dirulaguntzetarako prozedura

17. artikulua.— Hasiera

1. Dirulaguntzak norgehiagokako erregimenean emateko prozedura ofizioz hasi behar du beti organo eskudunak, eta Ordenantza honek, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, aurrekontua egikaritzeko oinarriek eta aplikagarri diren gainerako xedapenek agintzen dutenaren arabera erabaki behar da hasiera, instruktorearen izendapena eta dirulaguntzak emateko prozeduraren garapena.

2. Gastu-atxikipenaren kontabilitate-agiria eskuratu ondoren, ebazpen-proposamena duen txostena prestatu behar du kudeaketa-zerbitzuak, aurrekontuan erabilgarri dauden kredituen arabera. Artikulu honetako 3. apartatuan aipatzen diren datu guztiak jaso behar dira txosten horretan eta, Idazkaritzaren eta Kontu-hartzailearen txostenak jaso ondoren, deialdia dagokion organo eskudunari aurkeztu behar zaio, onar dezan. Bergarako Udalaren egoitza elektronikoa osorik argitaratu behar da deialdiaren testua; haren laburpena, berriz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez.

Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera bidali behar dira onartutako dirulaguntzak, hark argitara ditzan, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8.b) artikulua xedatutakoaren arabera.

3. Datu hauek azaldu behar dira, gutxienik, deialdian:

- Deialdia
- Xedea
- Araubide aplikagarria
- Aurrekontua
- Sail erantzulea
- Pertsona edo erakunde onuradunak
- Eskabideak
- Aurkeztu beharreko dokumentazioa
- Eskabideak aurkezteko modua, epea eta tokia
- Eskabideak baloratzeko irizpideak
- Izapideak eta ebazpena
- Jakinarazpena
- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak
- Finantzaketaren mugak
- Dirulaguntza ordaintzeko era
- Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna
- Pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak

- Dirulaguntza justifikatzeko era eta epea
- Publizitatea
- Dirulaguntzaren minorazioa
- Eskakizunak ez betetzea Itzultzeko kasuak
- Eskabide-eredua

4. Interesdunen eskabideekin batera, Ordenantza honetan eta dagokion deialdian zehaztutako agiriak eta informazioa aurkeztu behar dira. Ordenantza honetako 7. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da.

5. Zenbait agiriren ordez eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea onar daiteke dirulaguntza-deialdietan. Horrelakoetan, Udalak eskubidea du erantzukizunpeko adierazpen horretan jasotako datuak egiaztatzen dituen dokumentazioa noiznahi eskatzeko, betiere prozedurari ekin zitzaiola lau urte igaro ez badira, eta hamabost eguneko epea emango du horretarako.

6. Deialdiaren baldintzak betetzen ez baditu eskabideak, hamar eguneko gehieneko epe luzaezinean zuzentzeko eskatu behar zaio interesdunari, eta jakinaraziko zaio eskabidean atzera egin duela ulertuko dela hori egin ezean. Horretarako, ebazpena emango da alde aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

18. artikulua.— Instrukzioa

1. Deialdian izendatzen diren eta dirulaguntzak kudeatzen dituen sailean edo administrazio-unitatean diharduten teknikariei dagokie norgehiagokako erregimenean ematen diren dirulaguntzak banatzeko espedienteen antolaketa eta instrukzioa.

2. Instruktoreak ofizios egin behar ditu ebazpen-proposamena egiteko datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezko deritzen jarduketak.

3. Hona hemen nahitaez egin beharreko instrukzio-jarduerak:

a) Eskabideak ebaluatu, deialdian ezarritako balorazio-irizpide, -modu eta -lehentasunei jarraikiz. Aurretiazko ebaluazio-fase bat aurreikus dezake deialdiak, dirulaguntzaren onuraduna izateko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko.

b) Instruktoarearen txostena, adieraziko duena onuradunek dirulaguntzak jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituztela ondorioztatzen dela berak daukan informaziotik.

4. Eskabideak ebaluatu eta haien gaineko txostena egin ondoren, ebazpen-proposamena prestatu behar du instruktoareak eta, Kontu-hartzailetza Nagusiak txostena egin ondoren, dagokion organoari aurkeztuko dio, erabakia har dezan.

5. Ebazpenaren aurretik, Balorazio Batzordeari eskatu behar zaio proposamenaren gaineko irizpena. Dirulaguntza ematen duen sailaren mendeko informazio-batzordeko kideek osatuko dute Balorazio Batzordea.

Onuradunak alde aurretik eskatuta ematen diren sarien deialdiei dagokienez, Balorazio Batzordearen ordez Epaimahai bat osa daiteke, betiere deialdian hori egitea aurreikusten bada. Baloratu beharreko gaiaren arabera izan behar du epaimahaiaren osakerak.

6. Aurkeztutako proposamena ikusirik, txostena plazaratu behar du Balorazio Batzordeak —edo Epaimahaiak—; ondoren, dagokion organo eskudunak onartu behar du txostena, ebazpena egin dadin.

7. Prozeduran interesdunek azaldu gabeko egitate, alegazio edo frogak agertu eta kontuan hartzen diren kasuetan, ebazpen-proposamena jakinarazi behar zaie, eta hamar eguneko epea eman, alegazioak aurkez ditzaten. Instruktopeak alegazioen gaineko txostena egin ondoren, berriro Balorazio Batzordeari aurkeztu behar zaio proposamena, hark irizpena eman eta organo eskudunari aurkez diezaion, onar dezan.

8. Aurreko artikuluetan aipatutako izapide guztiak —Balorazio Batzordearen irizpena ere barne dela, edo Epaimahaiarena, dagokionean— aurrekontu-kredituen indarraldiaren aurreko aurrekontu-ekitaldian egin daitezke. Horretarako, kreditu-ziurtagiriaren ordez Kontu-hartzailletza Nagusiaren txostena aurkeztu behar da, eta han adierazi gastua egotziko zaion aurrekontu-aplikazioa aurrekontu-proiektuan dagoen edo aurreko bi aurrekontuetan egon den.

Aurrekontua onartu ondoren, kreditu-atxikipenari buruzko agiria idatzi behar du Kontu-hartzailletza Nagusiak, eta instrukzio-organoari aurkeztu behar dio, prozedura bideratzen jarrai dezan.

Nolanahi ere, deialdiak berriaz aipatu behar du alde aurreko izapidetze-mota hori, eta jakinarazi behar du dirulaguntzak emateko behar adinako kreditua egon behar duela dagokion ekitaldian.

19. artikulua.— Ebazpena

1. Alkate lehendakariari edo hark eskuordetzen duen organoari edo karguari dagokio dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena onartzea.

2. Ordenantza honek eta dagokion deialdiak agintzen dutenari jarraikiz arrazoitu behar da ebazpena, eta prozeduran egiaztaturik egon behar dute hartzen den ebazpenaren oinarriek.

3. Berriaz jaso behar da ebazpenean dirulaguntza eman zaion eskatzailearen edo eskatzaileen izenak, dirulaguntzaren zenbatekoa eta, dagokionean, ezetsi diren eskabideen eskatzaileen izenak. Halaber, zehaztu egin behar da zer irizpide erabili diren dirulaguntza emateko nahiz ukatzeko.

4. Ebazpenean adierazi behar da zer errekurtsio aurkez daitezkeen haren kontra, zer organo administratibo edo judizialean aurkeztu behar diren eta zein den horretarako epea, eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste errekurtsoren bat aurkezteko duten eskubidea.

5. Prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da. Deialdian zehaztutako egunetik zenbatu behar da epea, salbu eta deialdiak bere geroagoko data baterako atzeratzen baditu ondorioak.

6. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinarazi behar zaie ebazpena eskatzaileei.

7. Onuradunak dirulaguntza onartu egin duela joko da, baldin eta oinarrietan edo dirulaguntza emateko jakinarazpenean zehaztutako epean ez badu kontrako egintzarik gauzaten.

8. Gehieneko epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igaroz gero, legitimitatea dute interesdunek dirulaguntza emateko eskabidea administrazio isiltasunez ezetsi dela jotzeko.

III. kapitulua

Udalaren aurrekontu orokorrean aurreikusitako dirulaguntza izendunen araubidea eta zuzenean emateko prozedura

20. artikulua.— Araubidea

1. Hauek hartuko dira kontuan Udalaren aurrekontu orokorrean aurreikusitako dirulaguntza izendunak emateko: aurrekontua egikaritzeko oinarriak, kapitulu hau, Ordenantza hau eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, zeinak aplikagarri baitira onuradunen baldintzei, betekizunei, ordainketei, diruz laguntzeko gastuei, dirulaguntzaren justifikazioari, ez-betetzeari eta itzultzeko moduei, finantza-kontrolari, zehapenei eta abarri dagokienez. Bestalde, haiek bideratzeko hitzarmena ere hartuko da aintzat, salbuespen justifikatuetan izan ezik, berriazko baldintzak eta konpromisoak ezarriko baitituzte.

2. Hitzarmenak nahitaez jaso behar ditu:

a) Xedearen definizio zehatz eta berriazkoa.

b) Proiektuaren aurrekontua eta hura finantzatzeko modua.

c) Alderdien konpromisoak.

d) Behar denean, onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

e) Zein aurrekontu-kredituri egozten zaion dirulaguntza.

f) Zeharkako gastuak, kudeaketakoak eta banku-bermeari dagozkionak diruz laguntzeko aukera eta, dagokionean, laguntzaren ehunekoa.

g) Azpikontratatzeko aukera, Ordenantza honetako 35. artikulua ezartzen dituen mugak aintzat hartuta.

h) Ordainketa aurreratuak eta konturakoak egiteko aukera ezartzea eta, dagokionean, justifikatzea.

i) Ordainketa aurreraturik finkatzen bada:

— Emandako zenbatekotik ordainketa aurreratu gisa abonatu beharreko zenbatekoaren ehunekoa, betiere araudi honetako 41.4 artikuluan ezarritako gehieneko muga gainditu gabe.

— Egoki iritziz gero, Udalaren aldeko bermeak aurkezteko eskatzea; indarreko legerian araututako baliabideak erabili beharko dira.

j) Proiektu-aurrekontutik onuradunak finantzaketa propio bidez edo beste dirulaguntza batzuen bidez finantzatu beharreko ehunekoa.

k) Dirulaguntzaren bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

l) Dagokion dokumentazioa justifikatzeko modua, epea eta lekua, eta dirulaguntzaren ebaluazio-txostenean jaso beharreko datuak.

m) Hitzarmenaren indarraldia, hura luzatzeko aukera eta horretarako baldintzak eta betekizunak.

n) Dagokionean, Dirulaguntzen Araudi Orokorrean eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutako arau orokorrekiko salbuespena dakarten berezitasunak.

21. artikulua.— Hasiera

1. Ofizioz ekin behar zaio dirulaguntzak emateko prozedurari, Alkatetzaren edo hark eskuordetzen duen organoaren, karguaren edo mendeko erakunde publikoen organo eskudunaren erabakiz. Hasiera horretan, instruktorea izendatu behar da eta dirulaguntzak emateko prozedura garatu behar da, Ordenantza honetan, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera. Bestalde, aurrekontua egikaritzeko oinarriak finkatu behar dira, bai eta gainerako xedapen aplikagarriak ere.

Pertsona edo erakunde interesdunak ere hasaraz dezake prozedura. Horrelakoetan, eskabidea jaso ondoren ekin behar dio prozedura-ebazpenari organo eskudunak, aurreko paragrafoan adierazitako modua eta edukia aintzat harturik.

Prozedurari ekiteko, ezinbesteko baldintza da Udalaren aurrekontu orokorrean berariazko esleipena egitea dirulaguntza jaso behar duen pertsona publiko zein pribatuaren alde, eta dirulaguntza izendunaren zenbatekoa adieraztea.

2. Aurrekontuko partida Udalaren aurrekontuan sartzeak ez dakar onuradunaren aldeko inongo eskubiderik, harik eta organo eskudunak dirulaguntza emateko erabakia hartzen duen arte, ezarritako prozeduraren arabera. Halaber, aurrekontu-ekitaldi batean dirulaguntza bat esleitzeak ez dakar eskubiderik hurrengo urteetan ere laguntza jasotzeko.

22. artikulua.— Instrukzioa

1. Deialdian izendatzen diren eta dirulaguntzak kudeatzen dituen sailean edo administrazio-unitatean diharduten teknikariei dagokie dirulaguntza izendunak banatzeko espedienteen antolaketa eta instrukzioa. Instruktoarak ofizioz egin behar ditu ebazpen-proposamena egiteko datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezko deritzen jarduketak.

2. Hona hemen nahitaez egin beharreko instrukzio-jarduerak:

a) Aurrekontu partidan esleitutako gehieneko zenbatekoari dagokion gastu-atxikipenaren kontabilitate-agiria txertatzea prozeduran.

b) Dirulaguntza arautzen duen hitzarmenaren testua idaztea, behar izanez gero idazkaritzaren laguntzarekin.

c) Idazkaritzaren txosten juridikoa egitea, hitzarmenaren testuaz.

d) Txosten bat sortzea, besteak beste hau jasoaraziz: dirulaguntza eskuratzeko baldintzak betetzen dituela onuradunak, eskuragarri dauden datuen arabera.

3. Ebazpen-proposamena prestatu behar du instruktoarak eta, Kontu-hartzailatza Nagusiak txostena egin ondoren, dagokion organoari aurkeztuko dio, erabakia har dezan.

23. artikulua.— Ebazpena

1. Ebazpen-proposamena aztertuta, dirulaguntza emateko prozedura ebatzi behar du organo eskudunak.

2. Ordenantza honetan eta indarrean den araudian xedatutakoaren arabera justifikatu behar da ebazpena.

3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinarazi behar zaio ebazpena onuradunari.

4. Hitzarmena arautzen duen testua alderdiek sinatzean formalizatuko da dirulaguntzaren onespena; une horretatik aurrera, eraginkortasuna izango du dirulaguntzaren esleipenak.

5. Aurreko artikuluetan aipatutako izapide guztiak —hitzarmenaren izenpea izan ezik— aurrekontu-kredituen indarraldiaren aurreko aurrekontu-ekitaldian egin daitezke. Horretarako, kreditu-ziurtagiriaren ordean Kontu-hartzailatza Nagusiaren txostena aurkeztu behar da, eta han adierazi gastua egotziko zaion aurrekontu-aplikazioa aurrekontu-proiektuan dagoen edo aurreko bi aurrekontuetan egon den.

Aurrekontua onartu ondoren, kreditu-atxikipenari buruzko agiria idatzi behar du Kontu-hartzailetza Nagusiak, eta instrukzio-organoari aurkeztu behar dio, prozedura bideratzen jarrai dezan.

Nolanahi dela ere, Udalak balizko onuradunari egiten dion jakinarazpen orok berariaz aipatu behar du alde zuzeneko izapidetze-modu hori, eta ohartarazi dirulaguntza emateko nahitaezko baldintza dela kreditua egotea dagokion ekitaldian.

6. Artikulu honetako aurreko puntuan aurreikusitako hitzarmena izenpetu gabe utz daiteke, baldin eta emandako dirulaguntza Udalaren aurrekontu-egikaritzearen arauan aurreikusitakoa baino txikiagoa bada (egun, 3.000 euro); horrelakoetan, baina, berariaz aipatu behar dira helburuaren definizio berariazko eta zehatza eta alderdien konpromisoak.

Hitzarmenik izenpetu beharrik ez badago, onuradunak dirulaguntza onartu egin duela joko da, baldin eta oinarrietan edo dirulaguntza emateko jakinarazpenean zehaztutako epean ez badu kontrako egintzarik gauzatzen.

24. artikulua.— Prozeduraren salbuespenak

1. Dirulaguntzaren xedeari dagozkion inguruabar bereziak —espedientean alde zuzeneko aurretik justifikatuak— tarteko jotzen bada ebazpena ez dagoela hitzarmenaren bidez egin beharrik, aurreko artikuluetan aipatutako prozedura erabili behar da.

2. Salbuespen gisa, eta aurrez justifikatutako premiazko arrazoiak direla medio, alderantzikatu egin daiteke prozedura; hots, lehenbizi hitzarmenaren testu arautzailea sina dezakete Udalaren eta onuradunaren ordezkariak.

Horrelakoetan, prozedura bera erabili behar da, eta dirulaguntzaren esleipenak ez du eraginkortasunik izango, harik eta hura onartzeko eskumena duen organoak izenpetzea berresteko ebazpena plazaratu arte.

IV. kapitulua

Gainerako dirulaguntzen araubidea eta haiek zuzenean eta ohiz kanpo emateko prozedura

25. artikulua.— Eremua eta araubidea

1. Salbuespen gisa, zuzenean eman daitezke beste dirulaguntza batzuk ere, baldin eta frogatzen bada interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arrazoiak edo deialdi publikoa eragotzen duten beste arrazoi batzuk daudela.

2. Kapitulu honek, Udalaren aurrekontu orokorra egikaritzeko oinarriek eta Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorraren eta Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren xedapenek arautuko dituzte dirulaguntza horiek, betiere haien izaeraren aurkakoak ez badira.

26. artikulua.— Hasiera

1. Ofizioz ekin behar zaio beti dirulaguntzak emateko prozedurari, Alkatetzaren edo hark eskuordetzen duen organoaren, karguaren edo Udalaren mendeko erakunde publikoen organo eskudunaren erabakiz. Hasiera horretan, instruktoea izendatu behar da eta dirulaguntzak emateko prozedura garatu behar da, Ordenantza honetan, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera. Bestalde, aurrekontua egikaritzeko oinarriak finkatu behar dira, bai eta gainerako xedapen aplikagarriak ere.

2. Gastu-atxikipenaren kontabilitate-agiria eskuratu ondoren, ebazpen-proposamena duen txostena prestatu behar du instruktoreak, aurrekontuan erabilgarri dauden kredituen arabera. Artikulu honetako 3. apartatuan aipatzen diren datu guztiak jaso behar dira, gutxienez, txosten horretan eta, Idazkaritzaren eta Kontu-hartzailearen txostenak jaso ondoren, deialdia dagokion organo eskudunari aurkeztu behar zaio, onar dezan.

3. Besteak beste datu hauek jaso behar dira organo eskudunaren ebazpen-proposamenean:

a) Zein aurrekontu-kredituri egozten zaizkien dirulaguntzak.

b) Dirulaguntzen helburuaren definizioa, aipatuz halaber haien izaera berezia eta interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa, eta haien deialdi publikoaren zailtasuna justifikatzen duten arrazoiak.

c) Onuradunak eta laguntza-mota.

d) Diruz lagundu beharreko jardueraren sarrera- eta gastu-aurrekontua.

e) Dirulaguntza eskuratzeko baldintza guztiak betetzen dituztela onuradunek.

f) Zeharkako gastuak, kudeaketakoak eta banku-bermeari dagozkionak diruz laguntzen diren eta, hala bada, laguntzaren ehunekoa.

g) Azpikontratatzeko aukera, Ordenantza honetako 35. artikulua ezartzen dituen mugak aintzat hartuta.

h) Ordainketa aurreratuak eta konturakoak egiteko aukera ezartzea eta, dagokionean, justifikatzea.

i) Ordainketa aurreraturik egiten bada:

— Emandako zenbatekotik ordainketa aurreratu gisa abonatu beharreko zenbatekoaren ehunekoa, betiere araudi honetako 41.4 artikuluan ezarritako gehieneko muga gainditu gabe.

— Egoki iritziz gero, Udalaren aldeko bermeak aurkezteko eskatzea.

j) Onuradunak finantzaketa propio bidez edo beste dirulaguntza batzuen bidez finantzatu beharreko zenbatekoaren ehunekoa.

k) Dirulaguntzaren bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

l) Dagokion dokumentazioa justifikatzeko modua, epea eta lekua, eta dirulaguntzaren ebaluazio-txostenean jaso beharreko datuak.

4. Alkateari edo hark eskuordetzen duen organoari edo karguari aurkeztu behar zaio ebazpen-proposamena, edo Udalaren mendeko erakunde publikoen organo eskudunari, horiek baitira dirulaguntzak esleitzeko eskumena duten organoak.

27. artikulua.— Instrukzioa

1. Instruktoarek ofizioz egin behar ditu ebazpen-proposamena egiteko datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezko deritzen jarduketak.

2. Hona hemen nahitaez egin beharreko instrukzio-jarduerak:

a) Eskabideak ebaluatu, ebazpenean ezarritako balorazio-irizpide, -modu eta -lehentasunei jarraikiz.

b) Instruktoarearen txostena, adieraziko duena onuradunek dirulaguntzak jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituztela ondorioztatzen dela berak daukan informaziotik.

3. Eskabideak ebaluatu eta haien gaineko txostena egin ondoren, ebazpen-proposamena prestatu behar du instruktoreak eta, Kontu-hartzailtza Nagusiak txostena egin ondoren, dagokion organoari aurkeztuko dio, hitzarmenaren zirriborroarekin batera.

4. Organo eskudunaren onespina behar du dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamenak.

5. Prozedura honi lotutako izapide guztiak —dirulaguntzak ematen dituen ebazpena izan ezik— aurrekontu-kredituen indarraldiaren aurreko aurrekontu-ekitaldian egin daitezke. Horretarako, kreditu-ziurtagiriaren ordeztu Kontu-hartzailtza Nagusiaren txostena aurkeztu behar da, eta han adierazi gastua egotziko zaion aurrekontu-aplikazioa aurrekontu-proiektuan dagoen edo aurreko bi aurrekontuetan egon den.

Aurrekontua onartu ondoren, kreditu-atxikipenari buruzko agiria idatzi behar du Kontu-hartzailtza Nagusiak, eta instrukzio-organoari aurkeztu behar dio, prozedura bideratzen jarrai dezan.

Nolanahi dela ere, balizko onuradunarentzako jakinarazpen orok berariaz aipatu behar du aldeztu aurreko izapidetze-modu hori, eta ohartarazi dirulaguntza emateko nahitaezko baldintza dela kreditua egotea dagokion ekitaldian.

28. artikulua.— Ebazpena

1. Alkatearen edo hark eskuordetzen duen organoaren edo karguaren, edo Udalaren mendeko erakunde publikoen organo eskudunaren, erabakiz dirulaguntza emateko proposamena onesteak ebazten du dirulaguntzak emateko prozedura.

2. Ordenantza honek eta prozedura abiarazten duen ebazpenak agintzen dutenari jarraikiz arrazoitu behar da ebazpena, eta prozeduran egiaztaturik egon behar dute hartzen den ebazpenaren oinarriak.

3. Berariaz adierazi behar dira datu hauek: dirulaguntza jasoko duen onuraduna (edo onuradunak), laguntzaren zenbatekoa, hura emateko oinarri izan diren irizpideak eta arrazoiak eta, dagokionean, eskabideak atzera bota zaizkien gainerako eskatzaileak.

4. Erabakiaz gain, ebazpenean hauek adierazi behar dira: zer errekurtsio aurkeztu daitezkeen haren kontra, zer organo administratibo edo judizialean aurkeztu behar diren eta zein den horretarako epea, eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste errekurtsoren bat aurkezteko duten eskubidea.

5. Prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da.

6. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinarazi behar zaie ebazpena eskatzaileei.

7. Hitzarmena arautzen duen testua alderdiek sinatzean formalizatuko da dirulaguntzaren onespina; une horretatik aurrera, eraginkortasuna izango du dirulaguntzaren esleipenak.

Hitzarmena izenpetu gabe utzi daiteke, baldin eta emandako dirulaguntza Udalaren aurrekontu-egikaritzearen arauan aurreikusitakoa baino txikiagoa bada (egun, 3.000 euro). Horrelakoetan, esleipenaren ebazpenean xedearren definizio berariazko eta zehatza eta alderdien konpromisoak jaso behar dira, gutxienez.

8. Gehieneko epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igaroz gero, legitimitatea dute interesdunek dirulaguntza emateko eskabidea administrazio isiltasunez ezetsi dela jotzeko.

V. kapitulua

Publizitatea

29. artikulua.— Publizitatea

Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (DDBN) izango da dirulaguntzen publizitate-sistema nazionala.

Xede horietarako, dirulaguntza ematen duen administrazioak DDBNari bidali behar dio deialdi-ebazpenei buruzko informazioa, DDBNaren baliabide elektronikoak erabiliz.

Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratu behar dira emandako dirulaguntzen eta onuradunen zerrendak eta laguntzen zenbatekoak.

Ez da argitaratu beharrik egongo dirulaguntzek esleipen izenduna badute Udalaren aurrekontuan.

Ez dira plazaratuko dirulaguntzen datuak, baldin eta haiek argitaratzea pertsona fisikoen ohorea eta intimitate pertsonal nahiz familiarra errespetatzearen eta zaintzearen aurkakoa izan badaiteke eta hala jasotzen badute dirulaguntzaren berariazko oinarriek.

Jarduera egiteko dirulaguntza Bergarako Udalak eman duela zabaldu behar du pertsona edo erakunde onuradunak.

IV. TITULUA

Kudeaketa eta justifikazioa

I. kapitulua

Kudeaketa eta justifikazioa

30. artikulua.— Kudeaketa-printzipioak

Printzipio hauen arabera kudeatu behar dira dirulaguntzak:

- a) Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- b) Eraginkortasuna, Bergarako Udalak ezarritako helburuak betetzean.
- c) Eraginkortasuna, baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean.

31. artikulua.— Baldintzak

Kudeaketari dagokionez, berriz, baldintza hauek hartu behar dira kontuan dirulaguntzak esleitzerakoan:

- a) Dirulaguntza ematen duen organo administratiboaren eskuduntza.
- b) Administrazio-kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza emateak dakartzan eskakizun ekonomikoak betetzeko.
- c) Prozedura egokiro izapidetzea.
- d) Administrazio-egintzak alde aurretik fiskalizatzea, Legeak agintzen duenari jarraikiz.
- e) Organo eskudunek gastua onestea eta ordainketa agintzea.

32. artikulua.— Dirulaguntzaren justifikazioa bermatzeko kontabilitate-liburuak eta -erregistroak

Bergarako Udalaren dirulaguntzaren bat jasotzen duen pertsona fisiko edo juridiko orok bere kontabilitatean jaso behar du laguntza. Horretarako, kontabilitate-liburuak, izapide-erregistroak eta/edo gainerako agiriak erabili behar ditu, behar bezala eginak, administrazio publikoen merkataritzako, sektoreko edo berariazko legeriak agintzen duenaren arabera.

33. artikulua.— Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Hauek jotzen dira dirulaguntza jasotzeko moduko gastutzat: jardueraren izaerarekin edo dirulaguntzaren xedearrekin bat etortzeaz gain dirulaguntzen oinarri arautzaileek ezarritako epearen barruan egiten direnak, betiere berariazko oinarriek besterik agintzen ez badute.

Dirulaguntzak emateko deialdia arautzen duten berariazko oinarriek besterik agindu ezean, ulertuko da gastuak egiteko epea (fakturaren sortzapena eta data) urte naturalarekin batera amaituko dela oro har; hots, abenduaren 31n.

Halaber, gastu batek dirulaguntza jaso ahal izateko, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoa bete behar du, azpikontratatorako baldintzei eta lege-testu beraren 31. artikuluan xedatutakoari dagokienez.

2. Ez dira hartuko diruz laguntzeko moduko gastuak:

— Legezko baliodun faktura edo frogagiritzat jotzeko erregelamenduz galdagarriak diren baldintzak betetzen ez dituzten gastuen oharrak eta bestelako agiriak.

— Bazkarien, afarien eta ostalaritzako beste zerbitzu batzuen kostuak, diruz lagundutako jardueraren parte-hartzaileei dagozkienak izan ezik. Edonola ere, zaindu egin behar da egindako gastuaren eta lortu nahi den xedearen arteko proportzionaltasuna. Dena den, eta salbuespen gisa, gastu-kontzeptu hori berariaz onar dezake Udalak, dagokion akordioaren bidez.

34. artikulua.— Zuzeneko eta zeharkako gastuak

Oro har, diruz laguntzeko moduko gastutzat jotzen dira:

a) Zuzeneko gastuak, diruz lagundutako jardueraren edo programaren garapenak berariaz eraginak.

b) Zeharkako gastuak: onuradunak garatzen dituen zenbait jarduerari egotz dakizkiokeen kostu aldakorrak, edo egiturazko kostuak, diruz lagundutako jarduera zehatzari zuzenean egotzi ezin bazaizkio ere hura egiteko beharrezkoak direnak. Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira, betiere hala aurreikusten badu dirulaguntzaren deialdiak edo lankidetzak-hitzarmenak.

Onuradunari diruz lagundutako jarduera egozteko irizpideari dagokionez, oro har onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauak erabiliko dira, arrazoizkoa den zatian, betiere jarduera egiaz egin den epeari badagozkio kostuok.

35. artikulua.— Gastu handiagoak

1. Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, obrarako, zerbitzua emateko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu aurretik gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu behar ditu onuradunak, kasu honetan izan ezik: dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen behar adina entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada, premiazko arrazoiak edo bestelakoak direla medio —espedientean behar bezala justifikatu behar dira—.

2. Dagokion justifikazioarekin batera aurkeztu behar dira aurkeztutako eskaintzak, edo, dagokionean, dirulaguntzarako eskabidean. Efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatu behar da aurkeztutako eskaintzen artean, eta ebaluazio-txostenean berariaz justifikatu behar da hautaketa, baldin eta ez bada diru aldetik onuragarriena aukeratu edo ez badago merkatuan dagokion zerbitzuaren behar adina hornitzailerik edo emailerik.

36. artikulua.— Finantza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak, aditu-gastuak eta administrazio-gastu espezifikokoak

1. Diruz laguntzeko modukoak dira diruz lagundutako proiektua gauzatzeko egindako finantza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak, aditu-gastuak eta administrazio-gastu espezifikokoak, betiere zuzeneko lotura badute diruz lagundutako jarduerarekin eta ezinbestekoak badira hura prestatzeko edo egiteko.

2. Salbuespen gisa, diruz lagungarriak izan daitezke banku-bermeari dagozkion gastuak ere.

3. Inolaz ere ez dira hartu behar diruz laguntzeko moduko gastutzat:

- a) Banku-kontuen interes zordunak.
- b) Interesak, errekarquak eta zehapen administratibo eta penalak.
- c) Prozedura judizialen gastuak.

37. artikulua.— Zerga-gastuak

1. Oro har, diruz laguntzeko moduko gastuak dira zergak, dirulaguntzaren onuradunak egiazki ordaindu baditu.

2. Dena dela, zeharkako zergak ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastutzat jo behar, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.

Balio erantsiaren gaineko zergari (BEZari) dagokionez, hauek bakarrik izango dira diruz laguntzeko moduko gastuak: onuradunak ordaindu dituen eta kostu erreala duten zenbatekoak —hau da, benetan onuradunak ordaindu dituenak— eta kengarriak ez direnak, hala baldin badira onuradunak berreskuratu egin baitezake zerga. Onuradunak modu frogagarrian justifikatu behar ditu gastuak.

3. Halaber, inolaz ere ez dira hartu behar diruz laguntzeko moduko gastutzat errentaren gaineko zerga pertsonalak.

38. artikulua.— Azpikontratazioa

1. Onuradunak azpikontratatu egin duela jotzen da, baldin eta hirugarren batzuekin hitzartzen badu dirulaguntzaren xede den jarduera osoa edo zati bat.

2. Dirulaguntzaren deialdiak edo lankidetzak-hitzarmenak berariaz aurreikusten duenean soilik onartuko azpikontratazioa. Dirulaguntzaren deialdia, ebazpena edo esleipen-hitzarmena arautzen duten oinarrietan ezarri behar dute arautzaileek onuradunak hirugarren batzuekin azpikontrata dezakeen jardueraren gehieneko portzentajea. Azpikontratatzan den jardueraren ehunekoak ez du inoiz gainditu behar dirulaguntzaren % 50, ohiz kanpoko kasuetan izan ezik; horiek dirulaguntza-deialdiaren oinarriak edo haiek zehazten dituen hitzarmena onetsi aurretik justifikatu beharko dira. Hirugarren batzuei azpikontratatzan zaien jarduera dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20tik eta 60.000 eurotik gorakoa bada, kontratua idatziz jartzea eskatu behar da, eta Udal honek berariaz eta alde zuzenetik baimentzea hura.

3. Ezin da azpikontratatu jarduerarik, baldin eta diruz lagundutako jardueraren edukiari balio erantsirik gehitu gabe areagotzen badute haren kostua.
4. Ezin dira zatitu kontratuak haiek zenbatekoa gutxitu eta aurreko apartatuan zehaztutako baldintzak betetzea saihestearren.
5. Onuradunarekikoak bakarrik dira kontratisten obligazioak, eta hari dagokio diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa administrazioaren aurrean.
6. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaren ondoretarako, onuradunek arduratu behar dute diruz lagungarriak diren gastuen izaera eta zenbatekoaren mugak errespetarazteaz deialdiaren, hitzarmenaren edo ebazpenaren oinarri arautzaileetan; kontratistek, berriz, lagundu egin behar dute muga horiek betetzen diren egokiro egiaztatzen.
7. Onuradunak ezin du, inolaz ere, diruz lagundutako jarduera osoa edo parte gauzatzea hitzartu hauekin:
 - a) Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko debekuren batek eragindako pertsonekin edo erakundeekin.
 - b) Kontratututako jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo erakundeekin.
 - c) Ordainketak eragiketaren guztizko kostuaren ehuneko gisa definitzen duten bitartekariekin edo aholkulariekin, egindako lanaren edo emandako zerbitzuen merkatuko balioari dagokionez justifikatuta egon ezean ordainketa.
 - d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo erakundeekin, egoera hauetan izan ezik:
 - Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea.
 - Dirulaguntza eman duen organoaren alde aurreko baimena lortzea.
 - e) Deialdi eta programa berean laguntza edo dirulaguntza eskatu duten pertsona edo erakundeekin, baldintzak ez betetzeagatik edo behar besteko balorazioa ez lortzeagatik dirulaguntzarik eskuratu ez dutenekin.

39. artikulua.— Diruz laguntzeko modukoak diren gastuen finantzaketa

1. Dirulaguntzen zenbatekoa ezin da inoiz izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera; bestela, aldatu egin daiteke dirulaguntza emateko ebazpena eta, dagokionean, txikitu hitzartutako udal-ekarpena.
2. Dirulaguntzaren deialdian edo lankidetzeta-hitzarmenen edukietan zehaztu egin behar da diruz lagundutako jarduera egiteko Udalarena ez den finantzaketaren ehunekoa. Justifikatu egin behar dira finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jardueran izan duen aplikazioa.
3. Onuradunei emandako funtsek sortzen dituzten etekin finantzarioek handitu egingo dute emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, onuraduna administrazio publiko bat izan ezean.

II. kapitulua

Aurrekontua kudeatzeko prozedura

40. artikulua.— Gastua onartzea

1. Dirulaguntzen deialdia egin, haiek zuzenean esleitu edo hitzarmenak formalizatu aurretik, gastua onartu behar da, aplikagarri den aurrekontu-araudiaren arabera.
2. Dirulaguntza emateko ebazpenak edo hitzarmenak sinatzeak berekin dakar dagokion gastua egiteko konpromisoa onartzea eta obligazioa aitortzea.

41. artikulua.— Ordainketa onartzea

1. Dirulaguntzan edo hitzarmenean aurreikusitako zenbateko osoa ez da inolaz ere ordaindu behar, harik eta onuradunak aldeztu aurretik justifikatu arte jarduera, proiektua, helburua edo jokabidea gauzatu duela, Ordenantza honetan eta emakida arautzen duen arauan aurreikusitakoaren arabera.

Ordainketa guztiak egin gabe amaitzen bada aurrekontu-ekitaldia, kontabilizatu egin behar da ordaintzeko dagoen zenbatekoari dagokion gastua.

2. Galdu egingo da dirulaguntza —osorik edo parte bat— kobratzeko eskubidea, baldin eta justifikazio egokirik ez badago edo Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako ziorik baldin badago.

3. Dirulaguntza deialdian edo haren hitzarmen arautzailean berariaz xedatzen bada, aldeztu aurretik egin daitezke konturako ordainketak, eta aurkeztutako justifikazioaren baliokide den zenbatekoraino bakarrik hartuko dira zatikako ordainketa gisa. Zenbateko horrek inolaz ere ez du gainditu behar dirulaguntzaren zenbateko osoa.

4. Aldeztu aurreko ordainketak ere egin daitezke, eta justifikazioaren aurretik entregatutako funts gisa hartuko dira. Aldeztu aurretik egindako ordainketaren zenbatekoak ez du izan behar diruz lagundutako zenbatekoaren % 60tik gorakoa, salbuespen arrazoiturik egon ezean.

5. Deialdian edo hitzarmenean berariaz aurreikusi behar dira bai balizko konturako ordainketak, bai ordainketa aurreratuak, eta sinatutako dirulaguntzari edo hitzarmenari dagozkion jarduketak gauzatzeko premia izan behar dute justifikazio.

6. Aldeztu aurreko ordainketarik egin behar bada, bermeak eska daitezke (gordailuak, abalak, kauzio-aseguruak, berme pertsonal eta solidarioak, berme-eskubide errealek), guztiak ere indarreko legerian arautuak. Dirulaguntza- edo hitzarmen-mota bakoitza erregulatzen duen araudian zehaztu behar dira bermeak.

Ezingo zaie egin ordainketa aurreraturik Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 34.4 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten onuradunei.

7. Ez da osorik ordaindu behar dirulaguntzaren edo hitzarmenaren zenbatekoa, harik eta onuraduna egunean egon arte zerga-betekizunei dagokienez —udal-zergak eta Gizarte Segurantzaren kotizazioak barne—, edo onuraduna zorduna baldin bada itzulketaren bidez kotizazio-ebazpena dela medio.

III. kapitulua

Bergarako Udalak ematen dituen dirulaguntzen justifikazioa

42. artikulua.— Justifikazioa

1. Dirulaguntza jasotzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak bete dituela eta dirulaguntza ematea eragin duen jarduera egin duela eta helburua bete duela egiaztatu behar du onuradunak justifikazioaren bidez.

2. Dirulaguntza justifikatzen duen dokumentazioa dirulaguntzaren helburuekin bat datorrela jotzeko, oinarrizko irizpide hauek bete behar ditu:

- a) Justifikatzeko dokumentazioa egotea.
- b) Gastua bat etortzea dirulaguntzaren xedearekin.
- c) Justifikatzeko dokumentazioa nahikoa izatea ondore juridikoak eragiteko.

3. Deialdiaren, lankidetzeta-hitzarmenaren edo dirulaguntza emateko ebazpenaren oinarri arautzaileetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu behar da dirulaguntza justifikatzeko.

Agiri hauek aurkeztu behar dira gutxienez:

- a. Dirulaguntza ordaintzeko eskabidea
- b. Balantzea
- c. Aurrekontuarekiko desbideratze esanguratsuak
- d. Gastuen zerrenda sailkatua
- e. Diru-sarrereren zerrenda sailkatua
- f. Proiektuaren justifikazio-memoria
- g. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo -laguntza batzuen zerrenda zehatza eta haien zenbatekoa eta jatorria. Dagokion dokumentazioa ere erantsi behar da. Bestelako laguntzarik ez bada jaso, hala adierazi behar da.
- h. Programatutako jardueren gaineko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak eta -orriak, banatutako idatzizko materiala, prentsa-oharrak eta abar).

43. artikulua.— Dirulaguntzen justifikazioa dokumentatzeko moduak

1. Dirulaguntzaren deialdian edo lankidetzeta-hitzarmenaren testuan zehaztu behar da dirulaguntzen justifikazio-modalitatea, eta hauetako bat izan behar du:

- a) Egindako gastua justifikatzen duen kontua gastuaren frogagiriekin edo justifikazio-kontu sinplifikatua.
- b) Kontabilitate-orriak.

2. Ez deialdiak ez hitzarmenak ez badute zehazten zer justifikazio-modalitate erabili behar den, dagokion justifikaziozko kontu-ematea aplikatu behar da.

44. artikulua.— Egindako gastuaren justifikaziozko kontu-ematearen bidezko justifikazioa

Onuradunak edo erakunde laguntzaileak nahitaez aurkeztu behar du justifikazio-kontua dirulaguntza eman dion organoaren aurrean. Kontu horretan, egindako gastua justifikatu behar da, adierazpen-egilearen erantzukizunpean, haren zuzeneko egiaztagiria aurkeztuz. Dirulaguntza publikoaren xedea bete dela egiaztatzeko, fakturak eta pareko froga-balioa duten bestelako agiriak aurkeztu behar dira, merkataritzako trafiko juridikoan balioa edo administrazio-eraginkortasuna dutenak.

45. artikulua.— Justifikazio-kontuaren edukia.

Dirulaguntza justifikatzeko eta dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak ondorengoak dira, eta behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko dira:

- a) Dirulaguntza ordaintzeko eskaera.
- b) Balantzea.
- c) Aurrekontuarekiko desbideraketa garrantzitsuenak.
- d) Gastuen zerrenda sailkatua.
- e) Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendako gastuen fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan frogarako baliokideak diren edo administrazio-eraginkortasuna duten agiriak, eta, hala badagokio, ordainketa egin dela egiaztatzen duten agiriak.
- f) Diru-sarreraren zerrenda sailkatua.
- g) Jarduerak justifikatzeko memoria.
- h) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehetasun-zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta agiriak erantsita. Bestelako dirulaguntzarik ez badute jaso, horrela adierazi beharko dute.
- i) Programatutako jardueri buruzko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako idatzizko materiala, prentsa-oharrak, etab.), hala badagokio.

Udalak eskabidea eta justifikazioa egiteko inprimakiak eman ahal izango ditu.

46. artikulua.— Justifikazio-kontu sinplifikatua

Dirulaguntzak 60.000 eurotik beherakoak badira, horiek justifikazio-kontu sinplifikatuaren bidez justifikatu ahal izango dira. Justifikazio-kontu sinplifikatuak honako agiri hauek izan beharko ditu:

- a) Dirulaguntza ordaintzeko eskaera.
- b) Balantzea.
- c) Aurrekontuarekiko desbideraketa garrantzitsuenak.
- d) Gastuen zerrenda sailkatua.
- e) Diru-sarreraren zerrenda sailkatua.
- f) Jarduerak justifikatzeko memoria.
- h) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehetasun-zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta agiriak erantsita. Bestelako dirulaguntzarik ez badute jaso, horrela adierazi beharko dute.
- i) Programatutako jardueri buruzko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako idatzizko materiala, prentsa-oharrak, etab.), hala badagokio.

Hala ere, dirulaguntza behar bezala aplikatzen dela era arrazoituan egiaztatzeko, Bergarako Udalak laginketa-tekniken bidez egiaztatuko du, hau da, eskatzaileek aurkeztutako zerrenda xehatuaren faktura bat edo batzuk eskatuko ditu.

Udalak eskabidea eta justifikazioa egiteko inprimakiak eman ahal izango ditu.

47. artikulua.— Kontabilitateko egoera-orrien bidezko justifikazioa

Helburu generikoetarako funtsei —elkarte bateko mantentze-lanak, jardueren kudeaketa generikoa...— edo ustiapen-defizitak estaltzeko dirulaguntzei dagokienez, aski izango da defizita edo partzialki diruz lagundutako programa edo jardueraren gauzatzea frogatzen duten kontuak edo finantzetako egoera-orriak aurkeztea onuradunari dirulaguntza ordaintzeko. Dena den, aukera egongo da finantza-kontrola gauzatzeko edo, dagokionean, auditoretza pribatu bat eskatzeko.

48. artikulua.— Egoera berezietako gastuen justifikazioa

Hauek dira dirulaguntzak justifika daitezkeen kasu bereziak:

- a) Elkarrekin finantzatzen diren jarduerak.
- b) Ondasun higiezinak.
- c) Jarduera egin ondoren ematen diren dirulaguntzak.

49. artikulua.— Hainbaten artean finantzatzen diren jardueretarako dirulaguntzen justifikazioa

1. Aldi berean Bergarako Udalaren dirulaguntzak, onuradunaren funts propioak edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuk jasotzen dituzten jardueretan, egiaztatu egin behar da (Ordenantza honetako 45. artikuluan araututako justifikaziozko kontu-ematearen bidez) gastua egin dela eta bete direla dirulaguntza ororen gainerako baldintza guztiak. Halaber, funts horien zenbatekoa eta jatorria ere egiaztatu beharko dira, eta diruz lagundutako jardueretarako aplikatu direla frogatu ere bai.

2. Hitzarmenaren edo dirulaguntzaren justifikazioari egozten zaion faktura edo agiri bakoitzaren ehunekoa zehaztu behar da, eta dagokion jarduera garatzeko Udalaren dirulaguntzaz bestelako finantza-baliabiderik erabili den, eta, hala bada, haien zenbatekoa. Ebaluazio-txostenak atal batean berariaz zehaztu beharko du diruz lagundutako jarduera garatzeko erabili den finantzaketa osoa, honela xehatuta:

- a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa
- b) Administrazio publikoen beste dirulaguntza batzuk
- c) Jarduera finantzatzeko funts propioetatik bideratutako ehunekoa
- d) Beste baliabide batzuk

3. Gai horren eskuduntza duen Udaleko kudeaketa-zerbitzuak inguruabar horien berri eman behar du, hitzarmenaren eta dirulaguntzaren xedea betetzearren.

50. artikulua.— Ondasun higiezinak eskuratzeko dirulaguntzen justifikazioa

Ordenantza honetako 45. artikuluan xedatutako justifikazio-kontua, fakturak eta gainerako frogagiriak ez ezik, kostuari eta merkatuko prezioari buruzko txostena ere plazaratu behar dute Udalaren Zerbitzu Teknikoek.

51. artikulua.— Jardueraren ondoren emandako dirulaguntzen justifikazioa

Jarduera bat egiteko eman beharrean, dirulaguntza esleitu aurreko edo egoera jakin bat gertatu aurreko jarduera edo portaera bati erantzuteko ematen bada dirulaguntza, berori eman aurretik egiaztatu behar da jarduera, jokabidea edo egoera. Beraz, justifikazioa ez da dirulaguntza eman izanaren karga edo betekizun bat, baizik eta hura emateko baldintza.

52. artikulua.— Erakunde laguntzaileek kudeatzen dituzten dirulaguntzen justifikazioaren berezitasunak

1. Bi adar ditu erakunde laguntzaileek kudeatzen dituzten dirulaguntzen justifikazioak: alde batetik, egiaztatu behar da onuradunei entregatu zaizkiela dagozkien funtsak, eta, bestetik, laguntza ematen duen erakundeari onuradunen justifikazioak aurkeztu behar zaizkio. Justifikazioan, funtsen aplikazioa ez ezik, haiek kobratzeko baldintzak bete direla ere justifikatu behar da, Lankidetzaren Hitzarmenean xedatutakoaren arabera.

2. Halaber, udal-funtsen kudeaketari buruz Bergarako Udalak egiten dituen egiaztatze-jarduketak ere onartu behar ditu erakunde laguntzaileak, bai eta finantzak aztertu eta kontrolatzeko beste zeinahi ere, eta jarduketaren horietan eskatzen zaion informazio guztia aurkeztu behar du.

53. artikulua.— Justifikaziorako epea

1. Dirulaguntzaren deialdiak eta, dagokionean, lankidetzaren hitzarmenak zehaztu egin behar dute dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

2. Dirulaguntza justifikatzeko epea zehaztu gabe badago deialdian eta lankidetzaren hitzarmenean, jardueraren egiteko epea amaitu eta hiru hilabete igaro aurretik aurkeztu behar da justifikazioa.

54. artikulua.— Justifikatzeko betekizuna ez betetzearen ondorioak

Dirulaguntza justifikatzeko betekizun osoa edo zati bat betetzen ez bada edo justifikazioa epearen kanpo egiten bada, itzuli egin behar dira justifikatu gabeko zenbatekoak.

55. artikulua.— Justifikazio-kontua eta auditore-txostena

1. Ordenantza honetako 43.1 artikuluan aipatzen den ekonomia-txostenean jaso beharreko informazioa gutxitzea aurreikus daiteke, baldin eta:

a) Justifikazio-kontuarekin batera txostena aurkeztu badu kontu-auditore batek. Horrek, jardule gisa inskribatuta egon behar du Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean.

b) Kontu-auditoreak justifikazio-kontua berrikusten badu, erabakitzen den irismenaren arabera eta, dagokionean, dirulaguntza ematen duen administrazio publikoaren eremuan dirulaguntzen kontrol finantzarioaren eskumenak dituen organoak proposatzen dituen jardute- eta ikuskatze-arauei jarraikiz.

c) Justifikazio-kontuak txosten ekonomiko laburtua ere jasotzen badu, Ordenantza honetako 43.1 artikuluan aipatzen den jarduketaren txostenaz gain.

2. Kontu Auditoretzari buruzko uztailaren 12ko 19/1988 Legearen mendeko auditore batek egin behar badu onuradunaren urteko kontuen auditoretza, auditore berak ikuskatu behar du justifikazio-kontua ere, beste auditore bat izendatzea erabakitzen ez bada behintzat.

3. Onuraduna ez badago behartuta bere urteko kontuen auditoretza egitera, berak izendatu behar du kontu-auditorea, dirulaguntza ematen duen organoak izendatzea aurreikusi ezean. Deialdian xedatzen bada, bertan ezartzen den mugaraino jo daiteke diruz laguntzeko moduko gastutzat justifikazio-kontua ikuskatzeak eragiten duen gastua.

4. Kontu-auditorearen esku jarri behar ditu onuradunak Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14.1 artikuluko f) apartatuan xedatutakoaren arabera galdagarri zaizkion liburuak, erregistroak

eta agiriak, eta gorde egin behar ditu, Legeak aurreikusten dituen egiaztatze- eta kontrol-jarduketak egiteko.

5. Organo eskudunak ezarri behar du ekonomia-txosten laburtuaren edukia, eta, gutxiengutxienez, hauek jaso behar ditu: diruz lagundutako jardueretan egindako gastuei buruzko egoera-orria —gastuak behar bezala multzokatuta— eta, behar denean, hasieran aurrekontuan sartutako zenbatekoak eta gertatutako desbiderapenak.

6. Dirulaguntzaren helburua atzerrian egin behar den jarduera edo proiektu bat bada, ikuskapena egin behar den herrialdeko auditore jarduleei dagokie artikulua honetan eta Ordenantza honetako 47. artikuluan aurreikusten den araubidea, betiere herrialde horretan lanbide horretarako gaikuntza-araubiderik badago eta, dagokionean, nahitaezkoa bada kontabilitate-txostenen auditoretza egitea.

Herrialde horretan ez badago kontu-auditoretzan jarduteko gaikuntza-sistematik, herrialde horretan bizi den auditore batek egin dezake artikulua honetan aurreikusten den ikuskapena, betiere dirulaguntza ematen duen organoak izendatzen badu auditorea, behar den kalitatea bermatuko duten irizpide teknikoaren arabera.

56. artikulua.— Dirulaguntzen egiaztapena

1. Dagokion epearen barruan aurkeztu behar da dirulaguntza justifikatzen duen dokumentazioa, deialdian edo hitzarmenean aurreikusten den lekuan eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

2. Kudeaketa-zerbitzuak jarduera gauzatu dela eta dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatu behar du.

3. Espediente osoa Kontu-hartzailetza Nagusiari aurkeztu behar dio kudeaketa-zerbitzuak, dirulaguntzaren justifikazio formalari eta materialari buruzko dagokion txostena egin dezan.

Kontu-hartzailetzari dagokion txostena egin eta justifikazioa okerra baldin bada, atzemandako eragozpenen berri eman behar zaio interesdunari, zuzendu ditzan.

4. Ordainketak zatika egitea erabakitzen bada, dirulaguntza edo hitzarmen osorako aurreikusitako prozedura bera erabiliz egin behar da justifikazioa, justifikazioari begira araudi honetan aurreikusten diren baldintzen arabera.

57. artikulua.— Balioen egiaztapena

Diruz lagundutako gastuen merkatu-balioa egiaztatu dezakete udal-zerbitzuek, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 33. artikuluan aurreikusten diren baliabideetatik edozein erabiliz. Dagokionean, egiaztatze-lan horien emaitza jakinarazi egin behar zaio onuradunari, eta horrek aditu baten tasazioa eska dezake —bere kontura—, artikulua horretan aurreikusten den prozedurari jarraikiz, dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztearren.

58. artikulua.— Eskabideak birformulatzea

1. Onuradunak jarduera batzuk egitea bada dirulaguntza edo hitzarmen baten helburua, interesdunak ezin du hura birformulatu, jasotako laguntzaren zenbatekoa eskabidean ageri dena baino txikiagoa bada.

IV. kapitulua

Dirulaguntzak itzultzea

59. artikulua.— Dirulaguntza emateko ebazpenaren baliogabetasuna

Dirulaguntzak emateko ebazpena baliorik gabe geratuko da kasu hauetan: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako deuseztasun- edo deuseztagarritasun-arrazoiak daudenean, edo Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren arabera batere krediturik edo kreditu nahikorik ez dagoenean.

Deuseztagarritasun- edo deuseztasun-aitorpen judiziala edo administratiboa egonez gero, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira.

60. artikulua.— Itzultzeko arrazoiak

Jasotako kopuruak itzuli egin behar dira eta, dagokionean, ordaindu gabeko obligazioak deuseztatu, aurreko artikuluan aurreikusitako kasuetan ez ezik, kasu hauetan ere:

a) Beharrezko baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza lortzea eragotziko luketenak ezkutatu lortzen bada dirulaguntza.

b) Dirulaguntza emateko aurkeztu den helburua, jarduera edo proiektua osorik edo zati batean betetzen ez bada edo emateko arrazoietan ageri denari jarraikiz jokatzeko ez bada. Betetze-maila ia erabatekoa denean eta egiaztatzen denean onuradunaren jarduna konpromisoak betetzera bideratu dela zalantzarik gabe, proportzionaltasun-irizpidearen arabera zehaztuko da itzuli beharreko zenbatekoa. Kasu horretan, diruz lagundutako jardueraren betetze-ehunekoaren arabera zenbatekoa jaso ahal izango du onuradunak —kudeaketa-zerbitzuak txostena egin ondoren zehaztuko da—.

c) Justifikatzeko obligazioa Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoari jarraikiz betetzen ez bada edo aurkeztutako justifikazioa nahikoa ez bada.

d) Zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 18.4 artikulukoa eta Ordenantza honetakoa, betetzen ez bada.

e) Finantzak egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduerari aurka egiten bazaie, aitzakiak nahiz oztupoak jartzen bazaizkie edo uko egiten bazaie, edota kontabilitate-, erregistro- nahiz kontserbazio-betebeharrak betetzen ez badira eta, horren ondorioz, ezin bada egiaztatu jasotako funtsei zein erabilera eman zaien edo dirulaguntzaren helburua bete den.

f) Administrazioak erakunde laguntzaileei eta onuradunei ezarritako betebeharrak eta horiek hartutako konpromisoak betetzen ez badira.

g) Diru-laguntzen Lege Orokorrean aurreikusitako gainerako kasuetan.

61. artikulua— Itzuli beharreko kredituaren izaera

1. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira kobrantzari begira, eta, xede horrekin, hauek aplikatuko dira: Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Araua, Zergei buruzko Foru Araua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua. Itzultzeko prozedura, administratiboa izango da.

2. Jasotako dirua itzultzeko, berandutze-interesa eskatuko da, dirulaguntza ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den arteko epeari dagokiona, alegia.

62. artikulua.— Preskripzioa

Dirulaguntzen itzulketa kontabilizatu edo likidatzeko eskubidea lau urteren buruan preskribatuko da.

Epea kontatzeko eta preskripzioa eteteko, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

63. artikulua.— Itzultzera behartuak

Onuradunak eta erakunde laguntzaileak egongo dira itzultzera behartuta, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan eta Ordenantza honen 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

64. artikulua.— Itzultzeko prozedura ebazteko eskumena

Dirulaguntza eman duen organoak izango du onuradunari edo entitate laguntzaileari dirulaguntzak itzultzea eskatzeko eskumena, Ordenantza honen 60. artikuluan ezarritako itzultzeko kasuren bat dagoela ikusten badu.

V. kapitulua

Itzultzeko prozedura

65. artikulua.— Legeria aplikagarria

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluko administrazio-prozedurei buruzko xedapen orokorrek arautuko dute, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako berezitasunak ukatu gabe.

66. artikulua.— Prozeduraren hasiera

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunak erabakita (dela bere ekimenez, dela goragoko baten aginduz), beste organo batzuen arrazoitutako eskaera bidez edo salaketaren ondorioz. Udalaren Kontu-hartzailetza Nagusiak egindako finantza-kontrolari buruzko txostenaren ondorioz ere hasiko da.

67. artikulua.— Ordainketak atxikitzea

Kautelazko neurri moduan, onuradunari ordaintzeko aginduak etetea erabaki ahal izango du dirulaguntza ematen duen organoak (itzultzeko prozedura hastera erabaki ondoren) edo agintari ordaintzaileak. Itzulketa-espeditatea hasteko ebazpenean finkatutako zenbatekoa hartuko da aintzat, bai eta ordura arte sortutako berandutze-interesak ere. Hori guztia arrazoituta egin beharko da, eta onuraduna jakinaren gainean ipinita. Horrek aukera izango du dagozkion errekursoak jartzeko.

Atxikipenak proportzionala izan behar du, eta ebazpena eman arte eutsi behar zaio, tramitatzeke ezartzen den epea gainditu gabe. Hura justifikatzen zuten arrazoiak desagertzen badira, ordea, deuseztatu egin beharko da atxikipena, eta haren ordeaz, behar adinako bermea eratuko da, onuradunak eskatzen badu.

68. artikulua.— Interesdunari entzutea

Itzulketa-prozedura izapidetzean, interesdunak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da beti.

69. artikulua.— Ebazpena

1. Itzultzeko prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hamabi hilabetekoa izango da, hasteko erabakiaren datatik zenbatzen hasita. Epe hori eten edo luzatu egin daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik jakinarazi gabe amaitzen bada, iraungi egingo da prozedura. Hala ere, jarduketek aurrera jarraitu ahal izango dute amaitu arte, eta preskripzioa ez da etentzat joko epe hori amaitu arte egindako jarduketengatik.
3. Itzultzeko prozeduraren ebazpenak emango dio amaiera administrazio-bideari.

VI. kapitulua

Finantza-kontrola

70. artikulua.— Finantza-kontrolaren helburua

Dirulaguntzen finantza-kontrolaren bidez, hauek egiaztatu nahi dira: funtsak egoki eta zuzentasunez lortu direla, onuradunek eta erakunde laguntzaileek beren betebeharrak bete dituztela jasotako funtsak aplikatzean, dirulaguntza behar bezala justifikatu dela eta aurkeztutako justifikazioaren arabera dirulaguntzarekin finantzatu diren eragiketen errealitatea eta erregularitasuna —guztia ere ordenamendu juridikoan xedatutakoaren eta finantza-kudeaketa onaren printzipioen arabera—. Bestalde, kudeaketa ekonomiko eta finantzariorako teknikak eta prozedurak hobetzea ere bada finantza-kontrolaren helburua.

71. artikulua.— Finantza-kontrolaren edukia

1. Aurreko artikuluaaren ondoretarako, finantza-kontrola honela gauza daiteke:
 - a) Kontabilitate-erregistroak, kontuak edo finantzetako egoera-orriak aztertuz, analisi-prozedura zehatzak aplikatuz.
 - b) Banakako eragiketak eta eragiketa zehatzak aztertuz.
 - c) Kontrolatutako erakundeak egindako ekintza batzuen alderdi partzial eta zehatzak egiaztatuz.
 - d) Inbertsioen eta bestelako aktiboen egiaztapen materiala eginez.
 - e) Indarreko araudiak kasu bakoitzean ezartzen duenaren arabera egin behar diren kontrol-jarduera zehatzen bidez.
 - f) Kudeaketa ekonomiko eta finantzarioko sistema informatikoak berrikusiz. Sistema horretako funtzioak eta eragiketak aztertuko dira, informazioak fidagarritasunaren, osotasunaren, segurtasunaren, zehaztasunaren eta eskuragarritasunaren printzipioak betetzen dituela egiaztatzeko.
 - g) Kontu-hartzailletza Nagusiak erabakitako beste egiaztapen batzuk eginez, kontrolpean dauden erakundeek egindako jardueren ezaugarri bereziak kontuan hartuta.
2. Kontrol-araubide horren pean egongo dira onuradunak eta, dagokionean, erakunde laguntzaileak. Behartuta egongo dira organo eskudunak zeregin horiek betetzeko eskatzen dien

dokumentazio guztia (Administrazio honen esku ez dagoena) ematera, eta, horretarako, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako ahalmen eta betebeharrak izango dituzte langileek.

Betekizun hori betetzeari ezezkoa ematea aurka-egitetzat, aitzakiatzat, oztopotzat edo uko-egitetzat joko da, eta, Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera, itzultzeko arrazoi izan daiteke. Gainera, zehapenak ere eragin ditzake.

3. Onuradunak elkartuta dauden pertsona fisiko edo juridikoetara ere zabaldu ahal izango da finantza-kontrola, baita helburuak lortzeko, jarduerak egiteko, proiektuak gauzatzeko edo portaerak hartzeko interesa izan dezakeen beste edozein pertsonarengana ere.

72. artikulua.— Laguntzeko betebeharra

1. Onuradunek, entitate laguntzaileek eta dirulaguntzaren xedearekin zerikusia duten hirugarrenek prest egon behar dute laguntzeko eta organo eskudunek finantza-kontrolako eginkizunak betetzeko eskatzen dieten dokumentazio guztia emateko. Xede horrekin, organo horiek ahalmena izango dute askatasun osoz hauek egiteko: egiaztatu beharreko dokumentazio guztia (kontabilitate-liburuak eta -erregistroak, euskarri informatikoak...) eskuratu; kopiak egin; fakturak, pareko edo ordezkoko agiriak eta eragiketen gaineko beste edozein agiri —dirulaguntza ez dela behar bezala lortu, bideratu edo erabili erakusten dutenak— atxiki; banku-kontuen informazioa aztertu, edo negozioaren lokaletara eta diruz lagundutako jarduera egiten den gainerako establezimendu edo lekuetara sartu, dirulaguntzaren kontura finantzatutako eragiketen errealitatea eta zuzentasuna egiaztatzeko.

2. Betekizun hori betetzeari ezezkoa ematea aurka-egitetzat, aitzakiatzat, oztopotzat edo uko-egitetzat joko da, zehapen-araubidean aurreikusitako ondoreetarako.

73. artikulua.— Finantza-kontrola gauzatzeko moduak

Finantzen kontrola auditoretzen edo bestelako kontrol-tekniken bidez gauzatuko da, sektore publikoko auditoretza-arauetan eta Udalaren Kontu-hartzailtza Nagusiak ematen dituen jarraibideetan ezarritakoarekin bat.

74. artikulua.— Organo eskudunak

1. Udalaren Kontu-hartzailtza Nagusia arduratuko da finantza-kontrolaz, eta kanpoko laguntza eskatu ahal izango du, kontratazio administratibo egokiaren bidez.

2. Bakarka nahiz auditoretza-taldeetan jardunez lanak egiten dituzten ikuskatzaileek beharrezko lanbide-prestakuntza izan behar dute, independentziaz eta objektibotasunez jokatu behar dute, behar den arreta profesionalarekin jardun behar dute, beren lanaren ardura izango dute eta jardueretan lortutako informazioari buruzko konfidentzialtasuna zaindu behar dute.

3. Udalaren Kontu-hartzailtza Nagusiko funtzionarioak agintaritzaren agentetzat hartuko dira, dirulaguntzen finantza-kontrolako eginkizunak betetzean.

75. artikulua.— Finantza-kontrolerako urteko plana

1. Udal Kontu-hartzailtza Nagusiak finantza-kontrolerako urteko plana prestatuko du, ekitaldian egin beharreko finantza-kontrolen programazioa bilduta.

2. Plan hori aldatu egin ahal izango da, eskura dauden baliabideen arabera, plana gauzatzean antzemandako kontrol-beharren arabera edo Udalbatzaren Osoko Bilkurak berariazko auditoriak egiteko egiten dituen eskaeren arabera.

3. Horretarako, proposamen edo eskaera arrazoitua igorriko zaio Udal Kontu-hartzailletza Nagusiari, eta hark, baloratu ondoren, bidezkoa den ebazpena emango du, hasiera batean urteko planean aurreikusi ez den kontrol bat sartu edo kentzeari buruz eta kontrol hori beste pertsona fisiko edo juridiko bati zabaltzeari buruz.

76. artikulua.— Finantza-kontrolerako prozedura

1. Udal Kontu-hartzailletzari dagokio Udal honek eta bere erakunde autonomoek emandako dirulaguntzen finantza-kontrola egiteko eskumena.

2. Onuradunak eta, dagokionean, erakunde laguntzaileak jakinaren gainean ipini behar dira, finantza-kontrolerako jarduketak hasi baino lehen. Jakinarazpenean, jarduketan izaera eta norainokoa adieraziko dira, bai eta horien ardura duen kontrol-taldea zein egunetan agertu den, zer dokumentazio eskuratu behar zaion eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako elementuak ere. Onuradunei eta, behar denean, entitate laguntzaileei, beren eskubide eta betebeharren berri eman behar zaie jarduketan hasieran.

3. Finantza-kontrolerako jarduketak gehienez ere hamabi hilabeteko epean bukatu behar dira, jarduketak hasi direla jakinarazten denetik zenbatzen hasita, eta, amaitzeko, behin-behineko txostena egin beharko da, ezagutarazitako egitateak eta horren ondorioak bilduz.

Txosten hori entitate laguntzaileari edo onuradunari igorriko zaio, egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan hamabost eguneko epean.

Epe hori iragandakoan, eta egindako alegazioak kontuan hartuz, kontrol-organoak behin betiko txostena emango dio kontrolatutako laguntzen zuzeneko kudeaketa-organoari.

4. Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzea dagokiola ondorioztatzen bada emandako txostenetik, kudeaketa-organoak itzultzeko espediente hastera erabakiko du hilabeteko epean, eta onuraduna edo erakunde laguntzailea jakinaren gainean ipiniko du. Horrek hamabost egun izango ditu, bere defentsarako egoki iruditzen zaion guztia alegatzeko.

V. TITULUA

Dirulaguntzen arloko arau-hauste eta zehapen administratiboak Zehapen-prozedura

I. kapitulua

Dirulaguntzen arloko arau-haustekak

77. artikulua.— Arau-haustearen kontzeptua

Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboak dira Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 56., 57. eta 58. artikuluetan eta udal-ordenantza honetan tipifikatutako ekintzak eta ez-egiteak.

Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboak zehatzeko modukoak izango dira, baita zabarkeria hutsak direnean ere.

78. artikulua.— Subjektu erantzuleak

Pertsona fisiko edo juridikoak, publiko nahiz pribatuak, izango dira dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboen erantzuleak, bai eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak ere, baldin eta dirulaguntzen onuradun izanik egite edo ez-egiteengatik arau-hauste gisa tipifikatutako kasuetan erortzen badira, eta, bereziki, honako hauek:

- a) Dirulaguntzen onuradunak eta onuradunaren bazkideak, egiteko konpromisoa hartu duten diruz lagundutako jardueri dagokienez.
- b) Erakunde laguntzaileak.
- c) Jarduteko gaitasunik ez duten dirulaguntzen onuradunen legezko ordezkaria.
- d) Dirulaguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten pertsonak edo erakundeak, Diru-laguntzen Lege Orokorren 46. artikuluan xedatutakoa betez laguntza ematera eta eskatzen zaion dokumentazio guztia ematera behartuta daudenak.

79. artikulua.— Erantzukizunetik salbuesteko kasuak

Tipifikatutako egite edo ez-egiteek ez dute administrazio-erantzukizunik ekarriko dirulaguntzen arloan, kasu hauetan:

- a) Jarduteko gaitasunik ez dutenek egiten dituztenean.
- b) Ezinbesteko kasuetan.
- c) Erabaki kolektibo batetik datozenean, botoa salbatu dutenentzat edo erabakia hartu zen bileran egon ez zirenentzat.

80. artikulua.— Jarduketak jurisdikzio penalararekin bat etortzea

1. Prozedura izapidetzean agerian geratzen bada onuraduna delituzko egite edo ez-egite baten eraginpean egon daitekeela, Udalak jurisdikzio eskudunari pasatuko dio erruduntasun-testigantza, eta ez du zehapen-prozedura jarraituko harik eta agintaritzaren judizialak epai irmoa eman arte, jarduketak largetsi edo artxibatu arte edo Ministerio Fiskalak espediente itzuli arte.
2. Agintaritzaren judizialak zigorra ezartzen bada, ez da administrazio zehapenik jarriko.
3. Deliturik ez dagoela jo bada, auzitegiek frogatutzat jotako egitateetan oinarrituta abiatu edo jarraituko da zehapen-espedienteak.

81. artikulua.— Arau-hauste arinak

Hauek dira arau-hauste arinak: Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Ordenantza honetan, sinatutako hitzarmenetako klausuletan, dirulaguntzak arautzen dituzten deialdietan eta horiek emateko ebazpenetan jasotako betebeharrak ez betetzea, arau-hauste larriak edo oso larriak ez direnean eta zehapena mailakatzeko elementu moduan jarduten ez dutenean. Bereziki, arau-hauste arinak dira jokabide hauek:

- a) Jasotako dirua zertan erabili den justifikatzeko kontuak epez kanpo aurkeztea.
- b) Justifikazio-kontu zehaztugabe edo osatugabeak aurkeztea.
- c) Artikulu honetako gainerako paragrafoetan berariaz aurreikusita egon ez arren dirulaguntzen deialdietan jasota dauden betebeharrak ez betetzea, edo dirulaguntza ematearen edo hitzarmena sinatzearen ondorioz onuradunek beren gain hartu dituzten betebeharrak ez betetzea, erregelamenduz ezarritakoari jarraikiz.

d) Kontabilitateko edo erregistroko betebeharrak ez betetzea, bereziki:

1. Legez eskatutako kontabilitatean eta erregistroetan eragiketa bat edo gehiago ez zehatza ez izatea edo ez egitea.
2. Ez betetzea kontabilitatea, legez ezarritako erregistroak, euskarri gisa erabiltzen diren programa eta artxibo informatikoak, eta erabilitako kodetze-sistemak eramateko edo gordetzeko betebeharra.
3. Jarduera eta ekitaldi ekonomiko berari dagokion kontabilitatea entitatearen benetako egoera zein den jakitea galarazten duen eran eramatea.
4. Izaeraren arabera dagokienaz bestelako esanahia duten kontuak erabiltzea, diruz lagundutako jardueren errealitatea egiaztatzea zailtzen dutenak.

e) Frogagiriak edo agiri baliokideak gordetzeko betebeharrak ez betetzea.

f) Erakunde laguntzaileek ez betetzea Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 15. artikuluan ezarritako betebeharrak, artikulua honetako gainerako apartatuetan berariaz aurreikusten ez direnak.

g) Finantza-kontrolako jardueri aurka egitea, oztopoak edo aitzakiak jartzea edo uko egitea. Inguruabar horiek gertatzen direla ulertuko da dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboen erantzuleak, behar bezala jakinarazita, Udalaren Kontu-hartzaitza Nagusiko funtzionarioen jarduketak luzatu, oztopatu edo galarazteko jarduketak egin baditu, finantza-kontrolako eginkizunak betetzean.

Besteak beste, jokabide hauek hartuko dira aurka-egitetzat, aitzakiatzat, oztopotzat eta uko-egitetzat:

1. Ez aurkeztea edo ematea agiriak, txostenak, aurrekariak, liburuak, erregistroak, fitxategiak, frogagiriak, kontabilitateko idazpenak, programa eta artxibo informatikoak, sistema operatibo eta kontrolakoak eta egiaztatu beharreko beste edozein datu.
2. Errekerimenduren bat ez betetzea.
3. Zehaztutako lekuan eta garaian ez agertzea, bidezko arrazoirik izan ezean.
4. Bidegabe ukatzea edo eragozteko negoziaren lokaletan eta gainerako establezimendu edo lekuetan sartzea edo egotea; alegia, onuradunak edo erakunde laguntzaileak jasotako funtsak edo diruz lagundutako jardueraren errealitatea eta erregularatasuna behar bezala justifikatzeko froga-zantzuak dauden tokietan.
5. Finantza-kontrolaz arduratzen diren langileak zerbaitetara derrigortzea.

h) Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 46. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo erakundeek laguntzeko betebeharra ez betetzea, horren ondorioz onuradunak edo erakunde laguntzaileak emandako informazioa ezin bada egiaztatu.

i) Europar Batasunaren dirulaguntzei buruzko araudian arau-hauste arintzat hartutako gainerako jokabideak.

82. artikulua.— Arau-hauste larriak

Arau-hauste larriak izango dira jokabide hauek:

- a) Ez betetzea helburu bererako dirulaguntzak, laguntza publikoak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu direla organo emaileari edo erakunde laguntzaileari jakinarazteko betebeharra.
- b) Dirulaguntzaren helburuak nabarmen aldatuz, ezarritako baldintzak ez betetzea.

- c) Jasotako funtsak zertan erabili diren ez justifikatzea, horiek aurkezteko epea amaitu ondoren.
- d) Erakunde laguntzailearen izaera lortzeko, dirulaguntza arautzen duten oinarrietan eskatzen diren baldintzak faltsutzea edo dirulaguntza ematea eragotziko luketenak ezkutatzea.
- e) Erakunde laguntzaileak ez betetzea dirulaguntzak emateko erabakigarriak diren baldintzak edo betekizunak betetzen direla eta eraginkorrak direla egiaztatzeko betebeharra, horren ondorioz dirua itzuli beharra dagoenean.
- f) Europar Batasunaren dirulaguntzei buruzko araudian arau-hauste larritzat hartutako gainerako jokabideak.

83. artikulua.— Arau-hauste oso larriak

Arau-hauste oso larriak izango dira jokabide hauek:

- a) Dirulaguntza lortzea, berori emateko bete beharreko baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza ematea eragotzi edo mugatuko zuketena baldintzak ezkutatu.
- b) Jasotako zenbateko guztiak edo batzuk ez erabiltzea dirulaguntza eman zen helburuetarako.
- c) Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 15. artikuluetan hurrenez hurren onuradunentzat eta erakunde laguntzaileentzat aurreikusitako kontrol-jarduerei aurka egitea, aitzakiak edo oztopoak jartzea edo uko egitea, baldin eta, horren ondorioz, ezin bada egiaztatu jasotako dirua zertan erabili den; diruz lagundutako jardueren helburua bete den; jarduerak benetan eta behar bezala gauzatu diren, edo helburu bererako beste dirulaguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo baliabiderik jaso den beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik.
- d) Erakunde laguntzaileek, hala ezartzen denean, onuradunei ez ematea deialdian eta hitzarmenean aurreikusitako irizpideen arabera jasotako funtsak.
- e) Europar Batasunaren dirulaguntzei buruzko araudian arau-hauste oso larritzat hartutako gainerako jokabideak.

II. kapitulua

Dirulaguntzen arloko zehapenak

84. artikulua.— Zehapen-motak

1. Dirulaguntzen arloko arau-hausteak diruzko zehapenen bidez zehatuko dira eta, bidezkoa denean, diruzkoak ez diren zehapenen bidez.
2. Diruzko zehapenak isun finko edo proportzionalak izan daitezke.

Diruzko zehapen proportzionala bidegabe lortu nahiz aplikatutako edo justifikatu gabeko kopuruaren gainean aplikatuko da.

Isun finkoa 75 eta 6.000 euro bitartekoa izango da. Isun proportzionala, bestalde, bidegabe lortu nahiz aplikatutako edo justifikatu gabeko kopuruaren edo, erakunde laguntzaileen kasuan, bidegabe erabilitako nahiz justifikatutako funtsen zenbatekoaren halako hirurainokoa izan daiteke.

Diruzko isunak ez du eragotziko Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan aurreikusitako itzultzeko betebeharra, eta, isun hori kobratzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Toki Administrazioak indarrean duen aurrekontu-araudian zuzenbide publikoko diru-sarreretarako aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko da.

3. Arau-hauste larri edo oso larrietan, honelakoak izan daitezke diruzkoak ez diren zehapenak:
- a) Bost urtera arteko epean Bergarako Udalaren dirulaguntzak, laguntza publikoak eta abalak lortzeko aukera galtzea.
 - b) Bost urtera arteko epean erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera galtzea.
 - c) Bost urtera arteko epean Bergarako Udalarekin, horren erakunde autonomoekin eta horren mendeko gainerako erakunde publikoekin kontratuak egiteko debekua.

85. artikulua.— Zehapenen mailaketa

1. Kapitulu honetan aipatzen diren arau-hausteengatiko zehapenak mailakatzeko, kasu bakoitzean honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Dirulaguntzen arloko arau-haustea behin eta berriz egitea.

Inguruabar hori gertatu dela ulertuko da kasu honetan: subjektu arau-hausleari izaera bereko arau-hauste batengatik zehapena ezarri bazaio (arau-haustea larria edo oso larria izan) arau-haustea egin aurreko lau urteetan, administrazio-bidean emandako ebazpen irmoaren ondorioz.

Inguruabar hori arau-hauste larri edo oso larri batean gertatzen bada, 10 eta 75 puntu bitartean haziko da gutxieneko zehapenaren ehunekoa.

- b) Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 15. artikuluetan hurrenez hurren onuradunentzat eta erakunde laguntzaileentzat aurreikusitako kontrol-jarduerei aurka egitea, uko egitea edo oztopoak jartzea. Inguruabar hori arau-hauste larri edo oso larri batean gertatzen bada, 10 eta 75 puntu bitartean haziko da gutxieneko zehapenaren ehunekoa.

- c) Dirulaguntzen arloko arau-haustea egiteko iruzurrezko baliabideak erabiltzea.

Ondore horietarako, honako hauek hartuko dira iruzurrezko baliabidetzat:

1. Legez ezarritako kontabilitatean eta erregistroetan irregulartasun nabarmenak izatea.
2. Faktura, frogagiri edo bestelako agiri faltsu edo faltsutuak erabiltzea.
3. Diruz lagundutako jardueraren errealitatea egiaztatzea eragozten duten tarteko pertsona edo entitateak erabiltzea.

Inguruabar hori arau-hauste larri edo oso larri batean gertatzen bada, 20 eta 100 puntu bitartean haziko da gutxieneko zehapenaren ehunekoa.

- d) Jasotako dirulaguntzari emandako aplikazioa egiaztatzeko behar diren datuak Administrazioari ezkutatzea, justifikazio-agiriak ez aurkeztea edo agiriak osatu gabe edo zehaztasunik gabe aurkeztea.

Inguruabar hori arau-hauste larri edo oso larri batean gertatzen bada, 10 eta 50 puntu bitartean haziko da zehapenaren ehunekoa.

- e) Betebehar formalak betetzen atzeratzea.

2. Mailakatzeko irizpideak aldi berean aplikatuko dira. Arau-hauste arinengatiko zehapenak mailakatzeko soilik erabiliko da e) paragrafoan ezarritako irizpidea.

3. Aurreko apartatuetan jasotako mailakatzeko irizpideak ezin izango dira erabili arau-haustea larriagotzeko, baldin eta jokabide arau-hauslearen deskripzioan jasota badaude edo legez kontrako administrazio-prozeduraren beraren parte badira.

4. Arau-hausle berari dirulaguntza bakoitzagatik ezarritako zehapen arinen kopurua ez da izango hasieran emandako dirulaguntzarena baino handiagoa.

5. Arau-hausle berari dirulaguntza bakoitzeko ezarritako zehapen larri eta oso larrien zenbatekoa ez da izango, orotara, bidegabe lortu nahiz aplikatutako edo justifikatu gabeko kopuruaren edo, erakunde laguntzaileen kasuan, bidegabe erabili edo justifikatutako funtsen hiru halako baino handiagoa.

86. artikulua.— Arau-hauste arinengatiko zehapenak

1. Arau-hauste arin bakoitza 75 eta 900 euro bitarteko isunarekin zehatuko da, hurrengo apartatuan xedatutakoa izan ezik.

2. Kasu bakoitzean, 150 eurotik 6.000 eurora bitarteko isuna jarriko zaie arau-hauste hauei:

a) Legez eskatutako kontabilitatean eta erregistroetan eragiketa bat edo gehiago ez zehaztea edo ez egitea.

b) Legez ezarritako kontabilitatea edo erregistroak eramateko betebeharra ez betetzea.

c) Jarduera eta ekitaldi ekonomiko berari dagokion kontabilitatea entitatearen benetako egoera zein den jakitea galarazten duen eran eramatea.

d) Izaeraren arabera dagokienaz bestelako esanahia duten kontuak erabiltzea, diruz lagundutako jardueren errealitatea egiaztatzea zailtzen dutenak.

e) Kontrol-organoek eskatutako frogak eta dokumentuak ez aurkeztea, edo aurkezteko eskaerari uko egitea.

f) Erakunde laguntzaileek ez betetzea Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 15. artikuluan ezarritako betebeharrak.

g) Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 46. artikuluan aipatzen den laguntza emateko eta agiriak aurkezteko betebeharra ez betetzea horren pean dauden pertsonak edo erakundeek, horren ondorioz onuradunak edo erakunde laguntzaileak emandako informazioa egiaztatzerik ez badago.

87. artikulua.— Arau-hauste larriengatiko zehapenak

1. Arau-hauste larriak diruzko isun proportzionalaren bidez zehatuko dira, eta bidegabe lortu nahiz aplikatutako edo justifikatu gabeko kopuruaren edo, entitate laguntzaileen kasuan, bidegabe aplikatu edo justifikatutako funtsen zenbatekoaren halako bikoa izango da.

2. Emandako dirulaguntzaren edo erakunde laguntzaileek jasotako zenbatekoen % 50etik eta 30.000 eurotik gorakoa bada arau-hauste larriari dagokion kalte ekonomikoaren zenbatekoa, arau-hausleei zehapen hauek ere jarri ahal izango zaizkie, titulu honetako 80. artikuluko b) eta c) paragrafoetan aurreikusitako inguruabarretako bat gertatzen bada:

a) Hiru urtera arteko epean Bergarako Udalaren dirulaguntzak, laguntza publikoak eta abalak lortzeko aukera galtzea.

b) Hiru urtera arteko epean erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera galtzea.

88. artikulua.— Arau-hauste oso larriengatiko zehapenak

1. Arau-hauste oso larriak diruzko isun proportzionalaren bidez zehatuko dira, eta bidegabe lortu nahiz aplikatutako edo justifikatu gabeko kopuruaren edo, entitate laguntzaileen kasuan,

bidegabe aplikatu edo justifikatutako funtsen zenbatekoaren halako bitik hirura bitartekoa izango da.

Hala ere, ez dira zehatuko Ordenantza honetako 78. artikuluko b) eta d) paragrafoetan jasotako arau-haustek, arau-hausleek alde zuzenetik errekerimendurik egin gabe itzuli badituzte zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak.

2. Arau-hauste oso larriari dagokion kalte ekonomikoaren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa bada, arau-hausleei zehapen hauek ere jarri ahal izango zaizkie, Ordenantza honen 80. artikuluan b) eta c) paragrafoetan aurreikusitako inguruabarretako bat gertatzen bada:

a) Bost urtera arteko epean Bergarako Udalaren dirulaguntzak, laguntza publikoak eta abalak lortzeko aukera galtzea.

b) Bost urtera arteko epean erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera galtzea.

89. artikulua.— Zehatzeko prozedura

1. Alkateak erabaki eta ezarriko ditu dirulaguntzen arloko zehapenak, horretarako izendatutako inktoreak instrukzioa egin ondoren. Xede horrekin, egokitzat jotzen dituen txostenak eta Kontu-hartzailera Departamentuaren laguntza eskatu ahalko ditu organo tramitatzaileak.

2. Zehapen-prozeduren instrukzioa horiek abiatzeko erabakian zehazten den funtzionarioari, administrazio-unitateari edo organoari dagokio.

3. Dirulaguntzen arloko zehapenak administrazio-espeditentearen bidez ezarriko dira. Espediente horretan, interesdunari entzun egingo zaio, dagokion erabakia eman aurretik, eta izapidetzeko, hauetan xedatutakoari jarraituko zaio: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean.

4. Prozedura ofizioz hasiko da, organo emaileak edo entitate laguntzaileak egindako egiaztapen-jarduketaren ondorioz, baita dirulaguntzen finantza-kontrolako jarduketaren ondorioz ere.

5. Zehapenak ezartzeko erabakiek amaituko dute administrazio-bidea.

III. kapitulu

Preskripzioa eta erantzukizuna

90. artikulua.— Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa

1. Arau-haustek lau urteko epean preskribatuko dira, arau-haustea egin den egunetik zenbatzen hasita.

2. Zehapenak lau urteko epean preskribatuko dira, zehapena ezartzeko ebazpena irmo bihurtu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

3. Preskripzio-epea urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 30. artikuluan ezarritakoaren arabera etengo da.

4. Preskripzioa ofizioz aplikatuko da, baina interesdunak bere deklarazioa eskatu ahal izango du.

91. artikulua.— Arau-hausteen ondoriozko erantzukizuna amaitzea

Zehapena ordaindu edo betetzen denean edo preskripzio edo heriotzagatik iraungiko da arau-hausteen ondoriozko erantzukizuna.

92. artikulua.— Erantzukizunak

1. Diruzko zehapenaren erantzule solidarioak izango dira entitateetako kide, partaide edo titularkideak, bakoitza bere partaidetzaren arabera, ondasun-erkidegoen edo bestelako edozein unitate ekonomiko edo ondare bereiziren kasuan.

2. Diru-zehapenaren erantzule subsidiarioak izango dira merkataritza-sozietateak administratzen dituztenak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak duten pertsonak, aplikagarri zaizkien lege- edo estatutu-xedapenen arabera, baldin eta urratutako betebeharrak betetzeko beren eskumenekoak diren ekintzak egiten ez badituzte, ez-betetzeak gauzatzeko erabakiak hartzen badituzte edo haien mende daudenenak onartzen badituzte.

3. Desegin eta likidatutako sozietate edo entitateen kasuan —horietan legeak mugatu egiten du bazkide, partaide edo titularkideen ondare-erantzukizuna—, ordaintzeko dauden zehapenak pertsona horiei transmitituko zaizkie. Ondorioz, erantzukizun solidarioa izango dute, esleitu zaien edo esleitu behar izan zaien likidazio-kuotaren balioaren mugaraino. Legeak erantzukizuna mugatzen ez dien sozietate edo entitateen kasuan, ordaintzeko dauden zehapenak bazkide, partaide edo titularkideei transmitituko zaizkie, eta horiek zehapena betetzeko erantzukizun solidarioa izango dute.

Xedapen Iragankorra

Udal-ordenantza honen edukia ez zaie aplikatuko araudi horrek indarra hartu baino lehen onartu diren dirulaguntzen justifikazioarekin zerikusia duten gaiei.

Kasu guztietan, Ordenantza honetako IV. Tituluan araututako itzultze-prozedurari buruzko artikulua aplikatuko dira.

Ordenantza honetan aurreikusitako zehapen-araubidea, berori indarrean jarri aurretik hasitako dirulaguntzak emateko prozedurei aplikatuko zaie, baldin eta aurreko araudi aplikagarrian aurreikusitakoa baino hobea bada (38/2003 Legea, 2. XI, 4).

Azken Xedapena

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egunera sartuko da indarrean.